

Irisgarritasun plana



1. Liburukia: **ALDERDI OROKORRAK ETA ARAUDIA**

AZPEITIKO IRISGARRITASUN PLANA

PLANAREN AURKIBIDE OROKORRA

1.- ALDERDI OROKORRAK ETA ARAUDIA.....	1. LIBURUKIA
2.- BIDE PULIKOETARAKO EKIMEN PLANA.....	2. LIBURUKIA
3.- UDAL ERAIKINETARAKO EKIMEN PLANA.....	3. LIBURUKIA
4.- GARRAIORAKO EKIMEN PLANA.....	4. LIBURUKIA
5.- KOMUNIKAZIO ETA SEINALETIKA IRISGARRIA.....	5. LIBURUKIA
6.- IRISGARRITASUN PLANAREN SINTESIA.....	6. LIBURUKIA

1.- ALDERDI OROKORRAK ETA ARAUDIA

LIBURUKIAREN AURKIBIDEA

1.- AURKEZPENA ETA ERAGILEAK.....	3
1.1.- Aurkezpena	3
1.2.- Eragileak	3
2.- PLANAREN EGITURA.....	4
3.- SARRERA. PROBLEMATIKA.....	6
4.- OINARRIZKO KONTZEPTUAK	7
4.1.- Irisgarritasuna eta mugikortasuna	7
4.2.- Mugikortasunaren hobekuntza	12
5.- IRISGARRITASUN PLANA.....	16
5.1.- Irisgarritasun Plana idazteko beharra.....	16
5.2.- Irisgarritasun Planaren helburuak.....	18
5.3.- Irisgarritasun Planaren esparruak.....	21
5.4.- Irisgarritasun-ekimenen eragina.....	23
6.- ERABILITAKO METODOLOGIA.....	25
6.1.- Hirigintza.....	28
6.2.- Eraikinak.....	30
6.3.- Garraioa.....	32
6.4.- Komunikazioa.....	32
7.- ARAUDIA	33
I. ERANSKINA: HERRITAREN PARTE –HARTZEA.....	38
II. ERANSKINA: Oinarrizko bibliografia.....	58

1.- AURKEZPENA ETA ERAGILEAK

1.1. AURKEZPENA

AZPEITIAko Udalak hamarkada bat baino gehiago darama udalerriko Irisgarritasun Plana garatzen. Orain arte, Irisgarritasun Planak AZPEITiko Udaleko teknikariek egin dituzte. Izan ere, azken horri Irisgarritasun Plana (2015 -2019) deitu zaio.

2021ean, AZPEITIAko Udalak Irisgarritasun Planaren berrikuspen osoa planteatu du. Horrela, arautegitik datozen eskakizunak betetzen dira, bai eta udalerraren irudi eguneratua ere, denboran zehar lortutako aurrerapenak islatuz, bai eta balizko behar berriak ere, zenbait kasutan garai horretan izandako erregelamenduzko aldaketen ondorioz eta hiri-eremu berrien garapenaren ondorioz.

1.2. ERAGILEAK

Honako AZPEITiko Irisgarritasun Planaren eguneratzearen sustatzailea AZPEITiko Udala bera da, P2001900F IFK duena.

Udalak diru-laguntza eskatu zuen "Irisgarritasun Plana egin eta idazteko", Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2019ko uztailaren 24ko Aginduan argitaratutako deialdiari erantzunez.

Etxebizitzako sailburuordearen 2019ko abenduaren 30eko Ebazpenaren bidez ebatzi ziren 2019ko ekitaldirako laguntzak. AZPEITIAren "2020-2024 Irisgarritasun Planerako" diru-laguntza eman zela argitaratu zen. Emandako diru-laguntza eskatutako aurrekontu osoaren %75 da.

Javier Regalado Herrerok (IFZ: 16.055.135P) idatzi du Irisgarritasun Planaren Eguneratze hau. Arkitektoa da, eta Itziar Rodríguez Oyarbide arkitektoak eta Rafael Santander Orcasitas irisgarritasun-teknikariak osatutako giza taldearen zuzendaria da.

2.- PLANAREN EGITURA

Planari berari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Irisgarritasunari buruzko Legeak ezarritakoaren arabera, Udal Irisgarritasun Plan baterako, balioetsitako esku-hartzeak aztertu, diagnostikatu eta proposatu egin behar dira bide publikoan, udal-eraikinetan, garraio-azpiegituretan eta Udalak eskumenak dituen komunikazio- eta /edo informazio-alderdietan.

Honako dokumentuak eskakizun horiei erantzuten die, eta hainbat liburukitan banatuta aurkezten da. Liburuki horietan, eremu horien irisgarritasunari buruzko azterlana jasotzen da. Azterlan horretan, pertsona ororentzako, beren gaitasunak edozein direla ere, dauden espazio eta zerbitzu publikoak erabiltzearen eta gozatzearen arazoak aztertzen dira. Era berean, antzemandako gabeziak egokitzeko eta hobetzeko esku-hartzeak proposatzen dira, ekonomikoki baloratzen dira, eta horiek benetan eraginkortasunez lortzeko etapak ezartzen dira.

Egiturari dagokionez, Irisgarritasun Plan hau 6 Liburukitan dago banatuta. Liburuki bakoitzeko edukiak honakoak dira:

1. LIBURUKIA: ALDERDI OROKORRAK ETA ARAUDIA

Honako liburukia da eta irisgarritasunaren inguruko oinarriak eta funtsezko alderdiak jasotzen ditu.

Planaren alde orokorrak aurkezten ditu: irisgarritasunaren kontzeptua, testuingurua, helburuak, azterketa-esparruak eta plana idazteko garaian erabili den metodologia.

Halaber, Planari eragiten dion irisgarritasun araudia jasotzen du. Era berean, eraikuntza eta irisgarritasunaren inguruko bestelako araudiak ere jaso dira bertan.

2. LIBURUKIA: BIDE PUBLIKOETARAKO EKIMEN PLANA

Honakoak jasotzen ditu: bide publikoetako esparruan (kaleak eta espazio publikoak) aztertu diren eremuak, egindako diagnostikoa eta lehentasun irizpideak. Esku-hartze proposamenetan jaso dira azterturiko kale zein espazio libreak egokitzeko burutu beharreko lanak. Lehenetsitako ibilbideak ere jaso dira Liburuki horretan. Azkenik, egokitzapenen aurrekontuak eta etapak ere definitu dira.

3. LIBURUKIA: UDAL ERAIKINETARAKO EKIMEN PLANA

Azterturiko udal-eraikinen inbentarioaz gain, haien irisgarritasuna hobetzeko proposamenak jasotzen dira Liburuki honetan. Era beren, haien aurrekontuak eta egokitzapenerako etapak ezartzen dira, hala lau urteko ekimen-planean jasota geratuko direnenak, nola ondorengo faseetarako utziko direnenak ere.

4. LIBURUKIA: GARRAIORAKO EKIMEN PLANA

Autobus geltokiei zein mugikortasun murrizteko pertsonentzat erreserbatutako aparkalekuei dagozkien ondorioak jasotzen ditu. Haien irisgarritasuna bermatzeko hartu behar diren neurriak deskribatzeaz gain, aurrekontuak eta etapa plana ere jasotzen ditu.

5. LIBURUKIA: KOMUNIKAZIO ETA SEINALETIKA IRISGARRIA

Liburuki honetan aztertzen dira komunikaziorako dauden oztopoak. Dena den, liburuki honetan jasotako neurri guztiak jadanik jasota daude aurreko hiru liburukietan ere (bide publikoak, udal-eraikinak eta garraio-sistemak). Izan ere, komunikazioa zeharkako gaia da aurreko esparru guztietan, edonork erabiltzeko moduko egokitzapenak burutu nahi badira behintzat. Liburukiak, hortaz, komunikazio aldetik dauden irisgarritasun arazoak modu bateratuan ikusteko baino ez du interesik.

6. LIBURUKIA: IRISGARRITASUN PLANAREN SINTESIA

Liburuki hau aurretik aztertutako esparruen laburpena baino ez da. Bertan jasotzen dira esparru bakoitzerako ezarritako esku-hartzeak, haien aurrekontuak eta fasekako banaketa ere.

3.- SARRERA. PROBLEMATIKA



Gure gizarteak aldaketa demografiko garrantzitsua jasan du azken urteetan. Jaiotza-indizea gainbehera etorri den arren, hilkortasunekoa, aldiz, izugarri jaitsi da. Honek populazioaren zahartzea eta populazio aktiboaren jaitsiera ekarri ditu.

Gaur egun, arreta berezia jarri beharrean gaude honakoari: ukaezina da adineko pertsonen populazioaren geroz eta zati handiagoa hartzen dutela. Horrek berak, bizitzako egunerokotasunari aurre egiteko zailtasunak dakartza jende askorentzat, izan ezgaitasun-motaren batengatik, izan zaintza-lanengatik. Horiek guztiek inguruarekiko harremana baldintzatuta izaten dutenez, gizarte benetan berdin bat nahi badugu, arreta berezia jarri beharko da pertsona horien guztien gizarte-bizitza aktiboa bermatu ahal izateko. Horregatik guztiagatik, administrazioak interesaz gain ardura ere agertu behar du, irisgarritasuna hiriaren diseinu orokorrean txertatzeko. Udalek, egoera horretaz kontzientzia hartuta, etorkizunari aurre egiten diote Hiriak Pertsona Orentzako izan behar duela iritziz.

Pertsona Orentzat Irisgarritasun Plan bati ekiteak ardura suposatzen du herritar ororekiko, bai eta datozen belaunaldiekiko ere, zera ulertuz:

- ☞ Espazio publikoaren erabilera herritarren eskubidea da. Bertan batzen eta adierazten dira giza zein kultur talde ezberdinak, adin eta genero ezberdinetakoak.
- ☞ Espazio publikoak definitzen du hiriaren kalitatea, harreman zuzena duelako herritarren bizi-kalitatearekin ere.
- ☞ Espazio publikorako irisgarritasuna ere herritarren eskubidea da. Irisgarritasuna informaziorako, aukera berdintasunerako, hezkuntzarako, lanerako, hiri-eskaintzetarako... Baina kaleaz jabetzeko eta espazio publikoan adierazteko ere bai.

4.- OINARRIZKO KONTZEPTUAK

4.1.- IRISGARRITASUNA ETA MUGIKORTASUNA.

Irisgarritasun Plan honen edukiak modu egokian ulertu eta interpretatu ahal izateko, segidan aurkezten ditugu hainbat definizio, erabat oinarrizkoak, Irisgarritasun gaiaren ingurukoak. Halaxe definitu ohi dira, baita ere, Estatuko hainbat Elkargo Autonomikotako araudietan. Kontzeptu hedatuak direnaren seinale.

Irisgarritasun kontzeptua jaio zen ikuspegi positibo gisa. Aurretik erabili ohi ziren *egokitzen*, *praktikotasun* edo *oztopo arkitektoniko* bezalako kontzeptu negatiboak aurre egiteko sorturiko terminoa da. Erabat lotuta dago mugikortasunarenarekin: mugitzeko aukera bermatzea, erraztasun eta erosotasunez, modu autonomoan. Girian barrena ibili ahal izatea, oinez ala garraiobideren baten bidez.

Hiriko espazio publikoetan oinezko zein ibilgailuek konpartitzen dute bizitza. Izan zen garai bat ibilgailuei lehentsaun erabatekoa eman zitzaiena: galtzadak espaloien gainetik jarri ziren, espazioek erosotasuna eta egokitasuna galdu zutelarik.

Milurtekoaren aurretik, asko izan ziren, Agenda21 egitasmoaren baitan, ibilgailu eta oinezkoen arteko oreka berreskuratzen hastea erabaki zuten hiriak.

Irisgarritasuna, beraz, tresna bat da. Eta Irisgarritasun Plana motor bat eraldakuntza hau lortu ahal izateko. Oreka egonkor bat bilatu behar da, gaurko arazoei erantzun bat emateaz gain, biharko arazoei ere emango diena.

Irisgarritasuna

"Irisgarritasuna ezaugarri bat da. Hiri-espazioek, eraikinek, garraio-sistemek eta komunikazio-sistemek duten ezaugarri bat, zeinaren arabera, haien erabilera edonork modu autonomoan egin dezakeen, edozein delarik ere bere gaitasun maila fisiko, psikiko zein zentzumenezkoa ".

"Hiri-espazioen, eraikinen, garraio-sistemen edo komunikazio-sistemen ezaugarri bat da irisgarritasuna. Edonork erabiliak izateko duten gaitasuna neurtzen du ".

Laburbilduz, esan dezakegu irisgarritasuna dela espazio bat ulertzeko, bertan integratzeko, berarekin komunikatu eta edukiekin harremanetan egoteko dagoen aukera. Aukera horrek edonorentzako beharko luke izan, edozein delarik ere pertsonaren gaitasun maila, edo arazo fisiko eta/edo psikikoa edo entzumen/ikusmen/hizketa arazoa, izan hura behin-behinekoa ala behin-betikoa.

Beraz, ingurunearen ezaugarri bat da irisgarritasuna. Inguruak izan lezake, ala ez, edonork erabilia izateko gaitasuna. Ingurune zehatz bat irisgarria denean jende mota batentzat, baina ez denean hala beste batentzat, zuzenean sartzen da irisgarritasunaren kontzeptua mugikortasunarenarekin harremanetan.

Mugikortasuna

Izaki bizidunen ezaugarri bat da, ingurunearekin harremanak izatea ahalbidetzen diena. Pertsonaren batek harreman hori mugatua duenean, bi kasu ezberdin bereiz ditzakegu: mugitzerik ez duena eta mugikortasuna murriztua duena.

"Pertsona bat mugatuta dagoela esaten da, baldin eta, behin behinean edo behin-betiko, ingurunearekin harremanak izateko gaitasuna mugatua baldin badu".

"Pertsona batek arazoak dituela esaten dugu, behin behinean edo behin-betiko, ingurunea erabiltzeko edo harekin harremanak izateko gaitasuna murriztua duenean".

"Pertsona batek mugikortasuna murriztua duela esaten dugu, behin behinean edo behin-betiko, batetik bestera mugitzeko gaitasuna murriztua baldin badu".

Horiexek dira, irisgarritasuna sustatzeko lege eta arau hainbatetan jasotako definizioak. Hala ere, egokiago deritzogu mugikortasun arazoak dituzten pertsonen buruz aritzea, mugikortasun murrizteko pertsonen buruz aritzea baino.

Irisgarritasuna eta mugikortasuna, beraz, erabat lotuta dauden bi kontzeptu dira, bata inguruneari aplikatua (irisgarritasuna) eta bestea pertsonen dagokiena (mugikortasuna). Oztopoak ezabatzean ingurunea irisgarri egiten da, eta horrek mugikortasuna hobetzen du.

Oztopoak

Hala ezagutzen dira ingurunearen irisgarritasuna eta/edo pertsonen mugikortasuna eragozten duten oztopo guztiak. Ingurune fisikoan daudenei, oztopo arkitektoniko deritze. Honela sailkatzen dira: Hiriko Oztopo Arkitektonikoak (Hiri-oztopo gisara ere deituak), Eraikinetako Oztopo Arkitektonikoak, Garraio Sistemetako Oztopo Arkitektonikoak eta Komunikazioko Oztopoak.

Oztopoek ingurune fisikorako irisgarritasuna eragozten dute, baina, ondorioz, baita kultura ekitaldietara, lanpostuetara edo bizitza komunitariora ere. Orduan gertatzen dira elbarritasun egoerak.

Elbarritasunak, Gaitasun-ezak eta Gabeziak.

IMSERSOk hiru maila ezberdin onartzen ditu istripu edo gaixotasunen ondorioz gertatzen diren behin-betiko egoeretarako. Nazioarteko Osasun Erakundeak sortutako Nazioarteko Sailkapenean jasotako berberak dira: Gabeziak, Gaitasun-ezak eta Elbarritasunak. Hona gaiaren inguruko testu esanguratsua:

"Osasunaren esperientziaren barruan, **Gabezia** da egitura edo funtzio psikologiko, fisiologiko edo anatomiko baten galera edo anormaltasun oro. Pertsona bat izateko normaltzat jotzen den moduan edo marjinaren barruan jarduera bat egiteko gaitasunaren urritasunak eragindako murrizketa edo gabezia oro da **Gaitasun-eza**. **Elbarritasuna**, azkenik, urritasun baten edo desgaitasun baten ondorioz gizabanako jakin batentzat desabantailatsua den egoera da, bere adinaren, sexuaren eta gerta litezkeen faktore sozial eta kulturalen arabera normala den rol bat betetzea mugatzen edo eragozten duena".

Espainiar Estatuko gabeziek herritarren gain duten eragina ezartzeko, INEk egin ohi duen Inkesta erabili ohi da: *"Encuesta sobre Discapacidades, Deficiencias y Minusvalías"*. Bertan, lau atal bereizten dira. Atalak ez dira egitura itxiak, izan ere, pertsona bera atal bat baino gehiagoren baitan koka baitaiteke:

- **Gabezia fisikoak**: arazo fisikoak jasaten dituzten pertsonen eragiten die. Hala nola: gorputz-atalen bat galtzea, paralisia jasatea edo bizitza normala egitea eragozten duen gaixotasunen bat pairatzea. Kasu batzuetan, laguntza teknikoak erabili behar izaten dituzte.

- Gabeziak zentzumenetan: Ikusmen, entzumen edo hizketarako arazoak dituzten pertsonak dira, hala nola: itsuak, ikusmena murriztua dutenak, begiren bat galdu dutenak, gorrak, mutuak...
- Gabeziak psikikoak: burmuineko arazo edo gaixotasunak pairatzen dituzten pertsonak dira, hala nola: mongolismoa, heldutasun-gabezia, haurren edo gazteen garapen falta...
- Harremanetarako gabeziak: Hemen biltzen dira, kausa ezberdinak medio, elkarbizitza eragozten duten jarrerak dituzten pertsonak, hala nola: autistak.

Oztopoek eragindako pertsonak.

Oztopoek zuzenean kalte gehien egiten dien giza taldeen artean, noski, lehenak dira gaitasun murriztuak dituztenak, dela gabezia psikikoengatik (atzerapen intelektuala edo garuneko gaixotasunak), zentzumenezkoengatik (entzumena, ikusmena edo hizketa), fisikoengatik (arnas aparatua, zirkulazio-aparatua, nerbio-sistema edo giharren gabeziak) edo gabezia mistoengatik (garun-paralisia).

Hala, hurrengo pertsona-taldeei eragiten diete oztopoek, aipaturiko adibideen arabera:

- ☐ **Ulertzeko gaitasuna murriztua duten pertsonak.** Bereziki hizkuntza idatzia edo ahoskatuak sortzen dizkie arazoak. Baita adierazpen grafikoek ere. Ezinbestekoa da hauentzat mezu sinple eta argiak sortzea.
- ☐ **Hitz egiteko gaitasuna murriztua duten pertsonak.** Ahotsa komunikatzeko bitarteko den inguruetan izan ohi dituzte arazorik nagusienak.
- ☐ **Entzumenerako gaitasuna murriztua duten pertsonak.** Entzumena erabat galdua den kasuetan, soinu bidez emandako mezuak erabiltzen diren lekuetan, ikusmen bidez edo gorputzarekin ukimen bidez osaturiko mezurik ez badago, oztopoak sentitzen dituzte. Entzumena erabat galdu ez den kasuan, inguruaren zarata-mailak eragin handia du.
- ☐ **Ikusteko gaitasuna murriztua duten pertsonak.** Pertsona itsuek arazoak izaten dituzte horniduren kokalekuarekin (hiri-altzariak, zuhaitzak...). Baita zarata-maila handiko inguruneetan ere, soinu bidezko erreferentziak galtzen baitituzte. Erabat itsua izan gabe, ikusmena murriztua duten pertsonak, aldiz, informazioaren kokapen okerragatik izan ohi dituzte arazo nagusienak: karaktere txikiak, argiztapen urria... Kontraste eskasak zein bat bateko argi izpiek ere arazoak sortzen dizkiete.

- **Erraien gaitasuna murriztua duten pertsonak.** Maneiatzen zailak diren elementuekin izan ohi dituzte arazoak (ate astunak, adibidez). Baita bizkortasuna eskatzen dutenekin ere (galtzada gurutzatzea, garraiobide bat hartzea...).
- **Eskuen erabilerarako gaitasuna murriztua duten pertsonak.** Zenbait elementu ohiko erabiltzeko arazoak pairatzen dituzte (telefonoak, etenari elektrikoak, sarrailek, ateetako heldulekuak, iturriak...), duten tamainagatik edo modu egokian heldu ezin dakiekeelako.
- **Mugitzeko gaitasuna murriztua duten pertsonak.** Oztopoak aurkitzen dituzte hauetan: zoladura desagokiak, ate eta pasabide estuak, garraiobideetako sarreratornuak, maldak, beheratu gabeko (edo modu desagokian beheraturiko) espaloizintarriak, garraiobideen sarreretan, aparkaleku estuetan, eskaileretan, elementuen altuera gehiegizkoan, zein hurbiltzeko zailak direnetan (bereziki gurgil-aulkia darabiltenek).

Bestalde, badira irisgarritasunak (edo haren gabeziak) eragiten dien bestelako giza taldeak ere, besteren artean: adineko pertsonak, emakume haurdunak, haurren ardura duten pertsona helduak (haurren orgatxoekin doazelako, pisua daramatelako...), tamaina ezohiko pertsonak (obesitatea dutenak, enanismoa dutenak...) eta istripua izan duten pertsonak.

Irisgarritasun Plan honek egungo egoeraren ezagutza ahalbidetuko du. Baina, aldi berean, irisgarritasunarekiko hausnarketa orokor bat ere ekar dezake. Ondorioen gainean, helburuak zehaztu eta ekimenak martxan jartzeko aukera ekarriko du, hiria irisgarriago egin eta herritarren bizi-kalitatea areagotuz.

Lehentasunezko printzipio bat: berdintasun- aukera

Berdintasun eskubide eraginkorraren printzipioak esan nahi du pertsona ororen premiak garrantzi berekoak direla, giza aniztasunarekiko errespetuak inspiratu behar duela gizarteak eraikitzea, eta eskura dauden baliabide guztiak erabili behar direla herritar guztiek gizarte-bizitzan parte hartzeko aukera berdinak **dituztela** bermatzeko.

Lehentasunezko helburu bat: pertsona ororentzako diseinua

Pertsona ororentzako diseinua da helburu nagusia desgaitasunen bat duten pertsonen irisgarritasun-arazoetarako irtenbideak bilatzeko prozesuan. Desberdintasunaren estigma gainditzean datza, eta onartzea da desgaitasunaren baldintzatzaileak euren

inguruarekiko duten harremantan beste baldintzatzaile batzuen maila berean daudela, hala nola, adina, egiten duten jarduera, funtzioaren baten denbora-muga.

Horrek guztiak esan nahi du giza dimentsioa ez dutela definitzen gaitasun, neurri edo prestazio batzuen bitartez, baizik eta modu globalagoan hartu behar den kontua dela.

Irisgarritasun Planaren bidez lortu beharreko helburu nagusia pertsona ororentzako diseinuaren kultura berri hori garatzea izan behar da, eta aukera-berdintasun eraginkorra lortzeko estrategiarik onena.

4.2.- MUGIKORTASUNA HOBETZEA

Gainerakoekin harremanak izateko, ondasun eta zerbitzu desberdinetara iristeko eta jarduera anizkunak garatzeko, ia beti, mugitu egin behar izaten dugu. Mugikortasuna hobetzeko neurri hainbaten aplikazio bateratua ezinbestekoa da: batetik, joan-etorrietan erabilitako denbora murriztea ahalbidetuko dutenak eta, bestetik, ingurumenean eragindako kalteak murriztuko dituztenak. Hitz bitan, herritarren bizi-kalitatea hobetuko dutenak. Lan zail honi arazoaren beraren konplexutasuna onartuz egin behar zaio aurre, ikuspegi orokorra bistatik galdu gabe eta ekidinez “konponbide” bat ematea, baizik eta epe luzearako muga, modu jarraian aplikaturiko neurri zehatzak proposatuz. Irudimena erabiliz, hiri-jardueraren ekimen-lerroak “girotuko” dituzten neurriak beharko dira.

Horretarako, arrazoizkoa dirudi, mugikortasunerako beharrian gutxiago izango duen hiri-eredu baten pentsatzeak. Erabilera eta jarduera maila nahikoak mantenduz (hiriguneetan) edo ezarritik (aldiritan) lortu daiteke mugikortasunerako beharrian gutxitzea. Baliteke, baita ere, jarduera berrien ezarpena irisgarritasun egokiena duten lekuetara bideratzea, gune ezberdinekiko komunikazio egokia bermatuz eta nahitaezkoak ez diren joan-etorriak ekidinez. Hiri-egituraren hazkunderako ohiko ditugun estrategiak erabiliaz gero, aukera handia baitago sortzen diren eremu berrietan ere pilaketak sortzeko. Dauzkagun garraiobideen ahalik eta erabilera eraginkorrenak ere helburu izan behar du, modu ezberdinetako garraiobideen bateragarritasuna zainduz, ibilgailuen erabilera ez eraginkorra gutxituz, haien ondorio kaltegarriak aurre eginez, bide publikoen trataera hobetuz eta horniduretarako irisgarritasuna areagotuz.

Gure hiri askotan gertatu ohi denez gero, hiriguneak jasotzen ditu elementurik adierazgarrienak, gaur egungo bizimodura egokituta ez dagoen hiri-egituran. Hiri-espazio horren kalitatea herritar ororen eguneroko bizitzarako berreskuratzeak zera esan nahi du: bere elementu bereizgarrien arteko oreka erdiestea. Erdiguneek izan ohi dituzte beren

baitan erakunde eta eraikin esanguratsuenak. Tartean eraikin egoiliarak ere bai, nahiz eta herriguneek duten zerbitzuetarako joerak gutxiagotu egiten dituen egoiliar horiek. Hiriaren giza-neurria zainduko bada, eraikigarritasuna kontrolatu eta egoiliarren presentzia zaindu beharko da zentruetan, itsura hobetu etaa erabilera pribatua duten inguruneak zainduz. Trafikoa arindu beharko da, halaber, bi helbururekin: bertara iristea errazago egitea (irisgarritasuna hobetuz) eta bertatik pasatzea ere errazago egitea. Ekidin egin beharko da zerbitzuetara bideraturiko sektoreak herrigunearen pisu nagusia izatea, egoiliarrkin elkarbizitza arazoak saihesteko eta hiriaren kalitate ona bermatzeko.

Gainerako auzoetan, aldirietan, bakoitzaren ezaugarrietara moldaturiko neurriak jarri beharko dira martxan. Hala, erabilera bakarrak ekidin eta mugitu beharra gutxitzeko adinako ekipamenduak eta informazio sistemak kokatu beharko dira horietan.

Garraio-eredu gisa, ingurumenaren gain eragin orekatua izango duen sistema iraunkorra gailentzen da. Ekonomikoki eta politikoki onargarria izan dena, baina herritarren egunerokoari begira diseinatuko dena. Sistemak bateragarri egin beharko ditu nor bere auto pribatuaren erabilera eta denbora, segurtasuna eta erosotasunarekin, azken horri bereziki erreparatuz. Garraio-zerbitzuen eskaintza hobetu beharko da eta edonork erabiltzeko modukoa egin. Hala, auto pribatua erabiltzeko beharra gutxituko litzateke, bereziki herrien erdigunera iristerako garaian, zailak izango baitira garraibide publikoa ez beste edozeinetan bertaratzen saiatzea. Noski, halako sistema bat garatzeko beharrezkoak dira bestelako neurriak ere, hala nola: hiriko kanpokaldeko aparkalekuak sortzea, egoiliarrei aparkatzeko aukerak bermatzea eta T.A.O. moduko sistemak garatzea, eskaerak denbora-irizpideen arabera kudeatuko dituenak.

Bide-sareari dagokionez, erdietsi nahi diren erabilera eta jardueren beharretara egokitu beharko da, gune desberdinen aretkoa lotura hobetuz, garraio publikoari egokitzuz, pasokoa baino ez den trafikoa ekidinez, zonaldearen ezaugarrietara beheratuz autoen abiadura eta bide-seguratsuna hobetzeko gidariak arau guztiak errespetatu behar dituela gogora ekarriz. Halaxe bihurtuko da kalea irisgarri darabilten pertsona guztientzat.

Gainera, kaleen diseinu berriak kontutan izan beharko du, baita ere, ingurumenaren kalitatea. Hala, kutsaduraren eta zarataren aurkako neurriak hartu beharko ditu, oinezkoen ibilbideei arreta berezi eskainiz. Espaloiei neurri nahikoak ematea, galtzadaren neurriak abiadura txikiz ibiltzeko modukoak izatea, erabilera mixtoko zonaldeak zortzea eta, jarduera zein erabilerek hala gomendatzen duten tokietan, oinezkoentzat soilik

izango diren eremuak sortzea. Hortxe hainbat neurri oinezkoaren eta autoen arteko balizko gatazka ekiditen lagunduko dutenak.

Espaloien diseinurako kontutan izan beharko da haien neurriak egokiak izatea, bai bertan emango diren erabilerei begira (ibiltzea, egotea, ekipamenduetara iristea, hiri-altzariak jartzea, eta abar), baita haien irisgarritasunari begira ere (oinezkoen ibiak, beheraturiko zintarriak, eta abar).

Eragina gutxitzeko, galtzaden diseinua egiterako garaian kontutan izan da, neurriz zein formaz, ibilgailuei abiadura handiegiak ez hartzeko modukoak izatea. Era berean, egoki aparka dezaten, baldintzak jarri beharko dira espaloien zein oinezkoen pasabideen gainean gera ez daitezen lortzeko.

Oinezkoen joan-etorria bereziki garrantzitsua den zonaldeetan, herriguneetan bezala auzoetan ere, berariaz oinezkoentzako izango diren ibilbideak sortu beharko dira. Edo, halakorik ezin denean, erabilera mixtoa izango dutenak (oinezkoak gehi ibilgailuak); beti ere, irisgarritasun, segurtasun, zarata-maila, jarraitasuna eta oinezkoen egonaldia bermatuko duten neurriekin. Hala nola: hiri-altzari desberdinak jarritz, argiztadura zaindus, seinaleak jarritz, zoladura egokiak ipiniz, espaloiak zabalduz edo oinezkoen pasabideak bat bestearen atzetik jarritz.

Hainbat lekutan garatu izan diren antzeko esperientziak arrakastatsuak izan dira. Hirien berregituraketa ekarri duten neurriak izan dira: herri eta hiriguneen pixkanakako oinezkotzea, kanpokaldeko aparkalekuak sortzea, bizikletentzako bideak sortzea, tranbiak ezartzea, eta abar.


Kontua ez da autoak hiritik erabat kanporatzea, baizik eta haien erabilera gutxitzea. Autoarekin dugun harremana bere onera ekarri behar da, bete behar duen funtzioa garbi zehaztuz. Lan horretan ezinbestekoa da herritarren parte-hartzea, ez dadin izan oinezkoa autoaren gailentzearen kaltetun izan. Izan ere, gure gizartearen baloreen artean ontzat baititugu kalean ibiltzea eta besteekin harremantzea.

Kontua da frogatzea, guztiak beharrezko direnez, posible dela oinezko eta ibilgailuen arteko elkarbizitza orekatua. Hurbil ditugun lekuetara oinez mugitzeak inguruarekin harreman zuzenagoa izatea dakar berarekin. Garraiobideek balio behar dute urrunago ditugun guneetara iristeko eta komunikatu ahal izateko. Lanera joateko, ikasteko edo aisiarako mugitu beharrik ez bagenu bestelako harremanak izango genituzke ingurua eta ingurukoekin. Eta azkartasuna emango liguke, joan-etorriak sahiestuz.

Oreka faltak dakartza, kontrara, berekoikeria egoerak, gure gizartean geroz eta adierazgarriagoak direnak. Agerikoa da hori hiriak kotxez gainezka ikusten direnean. Halakotan ez da herritarren arteko komunikaziorik bermatzen, hain justu, horixe zenean hiriak beraiek sortzearen arrazoi nagusia.

5.- IRISGARRITASUN PLANA

Irisgarritasun Plan bat zera da: herrian burutuko diren jarduketa eta ekimenen antolaketarako eta planeamendurako tresna bat. Bere baitan jasotzen ditu egoeraren diagnostikoa eta ekimen eta lehentasunen proposamena, zeina, herria pausoz pauso irisgarria bihurtu dadin, ekimen-planen arabera antolatzen den.



5.1.- IRISGARRITASUN PLANA IDAZTEKO BEHARRA

Deskribaturiko errealitatearen ezaguerak eragin du administrazioak, pixkanaka, gaiarekiko sentikor bihurtzea. Hala, bide publikoetan, eraikinetan eta garraio sistemetan moldaketa hainbat eragin ditu. Egin ahala egiaztatu da gizarte guztia dela ekimen horien onuradun.

Egiaztatu da, bestalde, irisgarritasun-irizpideak kontutan hartuz egindako diseinuak ez duela sormena eragozten. Proiektu ororen plantemenduan anitzak dira kontuan hartu beharreko baldintzak eta irisgarritasuna horietako bat gehiago baino ez da. Hori kontutan hartzeak berarekin dakar diseinatu den espazioa edonork erabiltzeko modukoa izatea.

Hori guztia errealitate izan dadin lortzea da udaletako teknikarien ardura ere bada. Haiek sustatzen dituzten ekimen guztietan, izan hirigintzan edo eraikuntzan, irizpide eta jakituria nahikoarekin jardun behar dute, azken batean, egiten den lan berri bakoitzaren ondoren lorturiko espazioak beti benetan irisgarriak izan daitezen.

Horregatik guztiagatik, irisgarritasun gaietan jarduketak egiteko garaian, honako premisak izan beharko dira kontuan:

- Irisgarritasunak bizi-kalitatea dakar pertsona ororentzat, bai bertan bizi direnentzat zein bisitan datozenentzat.
- Irisgarritasunak askatasuna eta autonomia eskaintzen dizkie herritarrei, desio ez ditugun dependentzia edo menpekotasunak ekidinez.
- Irisgarritasunak ez du sormena mugatzen. Sormenari baldintza berri bat gehitzen dio, soilik.
- Irisgarritasunak barneratua behar du diseinu orokorrean. Ezin da izan gaitasunak murriztuta dituzten pertsonentzako gehigarri soil bat.
- Plangintza orokorretan sartuaz gero, irisgarritasunak ez dakar gainkosturik. Aldiz, balio erantsia dakar inbertsioen aurrekontuetan.

Ezin zaio hiriaren eraldaketa prozesuari ekin egungo egoeraren diagnostiko baten bitartez lortutako ikuspegi orokorrik gabe. Horregatik da ezinbestekoa jarduketak programatzea. Non jardun behar den, zein kosturekin eta, batez ere, zein kudeaketa prozedura jarraituko den ezartzea ezinbestekoa da udal ekimenen optimizaziorako. Hala, Planak ezarri beharko du:

- ☞ Egungo egoeraren diagnostikoa.
- ☞ Datozen urteetarako Udalak aurreikusita dituen ekimenak.
- ☞ Lanetan erabili beharreko jarduketa-irizpideak.
- ☞ Kudeaketa-sistemak.
- ☞ Presazkoak diren ekimenak.

Azken helburua, behin eta berrirz aipatu dena, zera da: bizitzeko hobea izango den hiria lortzea, pertsona ororen bizi-kalitatea hobetuko duena, bertan bizi, lan, ikasi, aisia izan edo atsedean hartzen dutenena, baina baita bisitan datozenena ere. Guztiek ahalko dute, hala, modu egoki eta kalitatezkoan burutu beraien funtzioa.

Irisgarritasun Plana egiteak aukera ematen du egungo egoera ezagutzekoa. Horren oinarrian, erdietsi beharreko helburu orokorrak ezarri ahalko dira, beti ere pertsona guztientzat hiri irisgarriagoa lortzeko bidean, herritarren bizi-kalitatea hobetze aldera. Helburu horien oinarrian ekin beharreko jarduketa zehatzak ezarriko dira, hiriaren irisgarritasuna areagotzeko.

Irisgarritasun Planak aukera ematen du, epe motz, ertain eta luzeko plangintzetan, baliabideen eraginkortasuna lortzeko. Horretarako lehentasunak garbi ezarri beharko dira, irizpide tekniko zein politikoen oinarrian. Garrantzitsua da, halaber, herritarrei hiriaren egoera ezagutaraztea, gida, plano edo dena delakoen bitartez.

Udalaren baitako ekimen-esparru bat da Plana, dauden arazoak zerrendatu eta, horiek konpontzeko, ekimen-plana ezartzen duena. Planean ematen diren konponbideek, askotan, garatuko dituzten proiektuak beharko dituzte gero. Planaren mailan, proposamen asko modu orokorrean egiten direlako.

Ikusi dugu jada adibide zehatz bat irisgarritasun gaietan jarduketak egiteko beharraz eta konpromisoaz; zehatzago, Irisgarritasun Planen beharraz. Eta da, "Guztientzat irisgarria eta aniztasunari irekia izateko udalerrien Dekalogoaren" 7. atala. Bertan jasotzen da **irisgarritasun planak martxan jar daitezen sustatu beharra**. Plan hauek beharrezkoak dira ekimen solteak ekidin eta egin beharreko guztiak planifikatu ahal izateko. Gainera, irisgarritasun planek jaso beharko luketen edukia ere aipatzen du atalak.

5.2.- IRISGARritasun PLANAREN HELBURUAK

Irisgarritasun Plana antolaketa plan bat da, adierazten duena zein lan egin behar diren herri edo hiri bat irisgarria izan dadin. Lan horiek fase desberdinetan antolatzen dira, denboran zehar planifikatuz, ahalik eta modu eraginkorrean erabili ahal izateko dauden baliabide ekonomikoak.

Planak eguneroko lan-tresna gisa balio behar die udaleko teknikariei. Hala, erreferentzia gisa erabili beharko lukete udalean egiten den proiektu orotarako. Planean jasotako proposamenak lagungarri izan behar dute egingo diren lanetarako, diseinua edo plangintza ito gabe, haiek bestelako baldintzapen ugari izaten dituzte-eta.

Irisgarritasun Plana idaztea soilik behin egin beharreko jarduera da. Ondoren egingo diren lanen helburuak hura eguneratuta mantentzea behar du izan. Kontutan izan behar da, behin Plana idatzita dagoen unetik aurrera herrian egingo diren lan eta proiektu berri guztiek jasota beharko dituztela, beraien baitan, irisgarritasunaren baldintzapen guztiak.

Planaren helburu nagusia da, lau urteren buruan, herrian zati nagusienak irisgarriak izatea (ibilbide nagusienak, interesguneak, udal eraikin esanguratsuak eta garraio zein komunikazio zerbitzu nagusienak).

Ondoren zerrendatuak dira Irisgarritasun Planari heltzerako garaian planteatu diren helburuak:

- Hiriaren egiturak dituen irisgarritasun, mugikortasun eta komunikazio zein informazio gabeziak hantzean, aztertu eta adieraztea, dela eremu publiko hiritartuan (kaleak eta gune libreak) zein udal eraikin eta ekipamenduetan.
- Udaleko arduradun eta teknikarientzat laguntzarako gida eta tresna gisa erabilgarria izatea, ahal dein heinean oztopo arkitektoniko berriak saihestu daitezen egingo diren lan berrietan, dela udalak zuzenean sustaturikoak, dela hirigintza edo eraikuntza-proiektuen ondorioz egiten direnetan.
- Aurkitu diren gabezia eta arazoentzat konponbide bat proposatzea, baloratua izango dena. Era berean, konponketa horiek egin daitezen, lanerako plangintza bat eskaintzea.
- Lanerako tresna bat eskaintzea, bateragarri egingo duena udaleko irisgarritasun-egoeraren kudeaketa eta bestelako azpiegituretarako lanen egintza, irisgarritasun-kostuen eraginkortasun osoa bilatuz.
- Bide-sarearen eta ekipamendu publikoetarako sarbidearen optimizazioa. Horretarako, ibilbide irisgarriak bermatuko dira, oinezkoen erosotasuna, segurtasuna eta duintasuna hobetsiz.
- Garraiobide kolektiboen sustapena. Baita horien moldaketa ere, edozein motako desgaitasuna duten pertsonak erabili ahal ditzaten.
- Erdiguneraren biziberritzea, hirigunearen ingurumen-kalitatea hobetzea eta espazio irekien trataera egokia.

Plana idatzi eta egikaritzeak hiriaren irisgarritasuneko auditoria bat burutzea dakar berarekin. Hala, egungo egoera ezagutu eta estrategia tekniko eta politiko bat zehazteko balioko du, ekonomikoki jasangarria eta kronologikoki onargarria izango dena.

Horretaz gain, proposatutako helburuak lortzeko beharrezkoa da, hiriaren birmoldaketa urbanistiko jarraitura egokituko bada, Planaren kudeaketarako mekanismo bat garatzea. Hala, Plana bera betetzea ziurtatzen da, jasotako proiektuen eta beraien epeei dagokienean. Gainera, eraginkortasuna areagotzen du hiriaren eraikuntzan diharduten agente guztien koordinazioarekin.

Gomendagarria da, gainera, herritarra Planaren garapenaren parte izatea, bere desio zein beharrianak adieraziz. Hala, proiektua herritarren nahietara egokitzea lortzen da, bere arrakasta bermatuz, herritarra baita, azken batean, lanaren emaitzaren helburu.

Irisgarritasun Planak aukera ematen du, bestalde, udal politika argi bat ezartzekoa irisgarritasun gaitan. Hala, herritarrei bertako egoeraren berri emateko balio dezake, batetik, eta bestetik, gertatzera doan eraldaketaren jakitun ere egiteko, epe motz, ertain eta luzean.

Plana egi bihurtzen ari dela jabetu behar du herritarrak, urratsez urrats. Horretarako lagungarria da Planaren beraren eta bertan jasotako ekimenen zabalkunde xehetua egitea. Horrek aukera ematen baitio herritarrari egiten ari den lana baloratzeko eta modu argiagoan gozatzeko ere. Azken batean, Planaren azken helburua da herritarren bizi-kalitatea hobetzea.

Gainera, Plana idazteak bestelako helburu batzuk lortzen ere laguntzen du, hala nola:

- Hiri polinuklearraren garapen-eredua sustatzea, herrigunea arindu eta gune berrietara jarduerak erakarritz.
- Hiriaren gune zehatz batzutan, erabilera bakarra nagusitu dadin eragozte. Erabilerak nahastea lortu daiteke leku zehatz horietan kokatuz bestelako beharrak eta eskakizunak dituzten erabilerak ere, adibidez: eskolak, kulturguneak edo atsedenguneak.
- Funtzionaltasuna sustatzea mugikortasuna hobetuz: garraio kolektiboetako sistemak zein telekomunikazio sistema aurreratuak erabiliz.
- Hiriko ingurumena zaindu eta herritarren bizi-kalitatea hobetzea, ingurumenaren kalitatea hobetzeko neurriak eta hiriko gune deprimituak birgaitzea sustatuz.
- Herrigunearen berreskurapen integrala sustatzea, herri osoarekin artikulatuz eta bertako erabilerak beste bguneetara ere zabalduz. Horrek herrigunearen bizigarritasuna eta ingurumenaren kalitatea hobetuko lituzke, baita ere.

5.3.- IRISGARRITASUN PLANAREN ESPARRUA

Irisgarritasun Plan batek, Legeak eta haren garapenerako Dekretuak hala derrigortuta, lau esparru nagusietako irisgarritasunaren azterketa hartzen du bere baitan: hirigintza, eraikuntza, garraioa eta komunikazioa.

Irisgarritasun Plana Udalaren planeamendu eta kudeaketarako tresna bat denez, bere baitan aztertutako elementuak soilik izango dira udalaren jabegokoak direnak. Edo behintzat, udalak haien gain jarduketak proposatzeko edo burutzeko aukera dutenak. Ez dira, beraz, udalaz kanpoko jabegopekoak diren elementuak. Horrek bermatuko du Udalaren eskumena izatea, soilik, Planean jasotako ekimenen garapena, bera izanik horren ardura duen agente nagusia.

Badago, halere, udalaren jabegokoak ez diren elementuak Planean jasotzeko aukera, Udalak kudeatzen duelako jabegoko ez duen elementu hori edo, besterik gabe, interes berezia duelako. Kasu horietan, Plana idazteko garaian zerikusia duten alde guztiekin adostuko da azterketa-esparrua.

Esparru bakoitzaren baitan definitzen diren irizpideak dira ondoren aipatuko direnak:

Hirigintza - bide publikoak

Planaren baitan jasotzen dira oinezkoentzako interesgarriak diren ibilbide guztiak. Ez dira jasotzen: hiri-bilbeak kohesioa galtzen duen inguruak (mendi-bideak eta abar), ibilbideen erabilerak berak ezin irisgarri egitea eragiten dutenak (industriagune batzuk, portuak eta abar), Udalak ingurunearen morfologian aldaketa esanguratsuak aurreikusita dituen inguruneak eta hiritartu gabeko guneak.

Udalerria irisgarri egitea da bilatzen dena. Horretarako proposamen mota ezberdinak egingo dira. Adibidez, espaloiak zabalatzeko proposatuko da kasu batzutan, neurri nahikoa emanaz oinez doan pertsona bat eta gurpil-aulkian doan beste bat modu erosoan gurutzatzeko aukera izan dezaten. Edo plataforma bakarreko kalea bihurtzea ere proposatuko da, kalearen zabalerak aukerarik ematen ez badu espaloiak modu nahikoan zabaltzeko. Galtzadaren mailan kokaturiko oinezkoen pasabideak ere proposatuko dira. Baita hiri-altzarien edo seinaleen kokapena aldatzea ere, fatxadaren aldean ibilbideak oztoporik izan ez dezan. Elementuak irisgarriak ez direnean, horiek aldatzea ere proposatuko da, irisgarritasun irizpideak betetzen dituzten beste batzuegatik.

Eraikinak

Udalaren jabegokoak diren eraikin guztiak sartzen dira Planean. Kanpo geratuko dira, ordea: Hondatuta edo hondamen egoeran dauden eraikinak, Udalaren plangintzaren arabera desagertzekoak direnak, edo eraldaketa proiekturen bat behintzat jadanik badutenak, horietan jasota egongo direlakoan irisgarritasunaren baldintzak. Kasuren batean, proiektu horiek aztertuko dira, betetzen dutela ziurtatzeko. Honako helburuak izango ditu:

- Ibilbide alternatiboen beharrik gabeko eraikinetarako sarrerak proposatzea.
- Barruko ibilbideetan dauden maila aldaketa guztiak konpontzea..
- Goiko solairuetara iristeko igogailuak kokatzea.
- Solairu bakoitzean, gutxienez, komun egokitu bat izatea.
- Gizonen zein emakumeen komunak egokitzea.
- Beste administrazioekin konbenioak sustatzea haien eraikinak ere egokitu ditzaten.
- Zabalkunde kanpainak proposatzea eta merkatariei pizgarriak eskaintzea, beraien lokalak irisgarriak egin ditzaten.

Garraioa

Garraioaren atalean, azpiegitura horietako elementu guztiak sartzen dira Planean, izan finkoak (markesinak, adibidez) edo mugikorrak (autobusak), beti ere udalaren jabegopekoak baldin badira. Era berean, udaleko aparkaleku erreserbatuen analisia ere egiten da. Helburuak, honakoak:

- Geraleku erosoak izatea.
- Udaleko interesguneen inguruan aparkaleku erreserbatuak izatea.

Komunikazioa

Azkenik, komunikazioaren esparruan, aurreko atal guztietan komunikazio irisgarriarekin zerikusia duten alderdi guztiak jasoko dira Planean. Hala nola: informazio sistemak, herritarren arretarako guneak, seinaleak... beti ere Udalaren menpekoak diren esparruetan. Helburua:

- Zentzumenetako arazoak dituzten pertsonen aukera izatea komunikatzeko, informazioa lortzeko eta hirian, eraikinetan eta garraio azpiegiturretan orientatu ahal izateko. Halaber, espazioak arazoak dituenan, haiek hautemateko baliabideak izan ditzatela bermatzea.

5.4.- IRISGARRITASUN-EKIMENEN ERAGINA

Jarraian ikusiko ditugun adibideek adierazten dute zer nolako onurak lortu daitezkeen irisgarritasun eta mugikortasun politika egokiak burutzen badira. Horietan, hiriaren irisgarritasunean eragin positiboa duten jarduketa eta konponbide hainbat aipatzen dira.

- **Kaleen oinezkotzea.** Ibilgailuentzako pasabidea itxi eta oinezkoentzat berreskuratzen dira kaleak. Hauxe da irisgarritasunaren ikuspegitik arrakasta eta jandartean eraginik positiboenak lortzen dituen jarduketa. Batzutan kontrako iritziak izan ohi dira, berehala baretzen direnak lanak amaitu ostean, duten arrakastagatik.
- **Zabalera handiko espaloï berriak sortzea.** Gutxienik 2 metro zabal diren espaloïez ari gara. Hiritartzen diren gunek berrietan halakoxeak izan ohi dira, araudiak behartuta.
- Zuhaitzen **txorkoak babestea**, estalki egokiekin, ikusmen arazoak ditzuen pertsonen arazorik izan ez dezaten.
- Trafiko eta oinezkoen dentsitate handia den guneeetan **soinudun semaforoak jartzea**. Pertsona itsuek, hala, errazago izan ohi dute galtzada gurutzatzea. Zabaldua da ikusmen arazoak dituzten artean, urrutiko mandotxo bat poltsikoan eramatea. Semaforo batetara hurbiltzean, mandoari eragin eta semaforoak, oinezkoentzat berde jartzean, soinua aterako du, nondik gurutzatu behar duten adieraziz. Halako mando baten bitartez aktibatzen ez denean ez du soinurik egiten semaforoak, gehiegizko zaratak sahiestuz.
- **Oinezkoentzako ibi irisgarriak** eraikitzea. Espaloïaren mailatik altzadaren mailara jaitsi ahal izateko malda egokiak dituzten ibiak behar dituzte gurgil-aulkian doazenean. Halaber, zoladuran textura eta kolore aldaketak behar dituzte ibietan ikusmen arazoak dituzten pertsonen. Bereziki aipatu beharrekoa da inguruan aparkalekuak dituzten ibiak, izan hauek lerroan aparkatzekoak ala baterian. Kasu horietan ezinbestekoa da espaloïa galtzadan barneratzea, oinezkoek autorik datorren ala ez modu seguruan ikusi ahal dezaten.

- Beste aukera bat da galtzada izatea espaloiaaren maialararte igotzen dena. **Galtzada goratua** deritzo oinezkoen pasabide mota honi. Ibilgailuei derrigortzen zaie gora eta behera egitea, oinezkoek malda aldaketarik pairatzen ez dutelarik ibilbidearen eta pasabidearen artean. Egokienak dira hauek oinezkoen joan-etorria handiena den kasuetan.
- **Obrak dauden kasuan, babes eta seinaleztapen egokia jartzea:** hesiak, aldamiok eta abar egokiak izatea, normalean arazoa suposatzen baitute.
- **Irekiera automatikoa duten ateak jartzea** eraikin publikoetan. Pertsona ororen irisgarritasuna bermatzeko konponbiderik egokiena dira.
- **Eraikinetako seinaleak egokiak izatea**, ikusmen edo entzumen arazoak dituzten pertsonak modu egokian aritu daitezen.
- **Komunak egokitzea** eraikin publikoetan, mugikorasuna murriztua duten pertsonen modu egokian erabili ahal ditzaten.
- **Suteen kontrako babes neurri** egokien sistema jartzea eraikin publikoetan.
- **Mugikortasuna murriztua duten pertsonentzat aparkaleku erreserbatuak** kokatzea, eraikin publikoetarako sarreren inguruetan.
- **Eraikinen barrukalde zein kanpokaldeko seinaleak** egokiak izatea, kasu guztietan.
- Maila-aldaketak gainditu ahal izateko **arrapala egokiak edo igogailu irisgarriak** jartzea.

6.- ERABILITAKO METODOLOGIA

Behin Irisgarritasun Plana burutzea erabakita dagoenean egin beharreko lehenengo lana zera da: hiriak une horretan duen irisgarritasun maila ezagutzea bide publikoei, udal eraikinei, garraio azpiegiturei eta komunikazio sistemei dagozkien esparruetan..



Horretarako, aurretiaz izan daitekeen informazio guztia aztertu ondoren, hirian zehar landa-lan zorrotza egin behar da. Lan horretan aurkituko baitira, izan ere, dauden oztopoak eta lekuan bertan ikusiko baitira oztopo horiek kentzeko dauden aukera ezberdinak. Horretarako, hiriaren egitura, baldintza geografikoak, bide-sarea, ekipamenduak, garraio-sistemak, hiri-altzariak, informazioa eta sainalizazioaren inguruko baldintzak aztertzen dira.

Jarraian, landa-lanean aurkitutako arazoak baloratzen dira eta konponbide posibleak proposatzen, beti ere kontuan izanik beraien bideragarritasuna eta inguru osoari ahalik eta erantzun integratu, koherente eta armonikoena eskainiz.

Behin aurkitutako arazoen garrantzia baloratuta eta lehentasunak aztertuta, beraien konponbide edo hobekuntzarako proposamenak egoten dira, dagozkien balorazio ekonomikoekin.

Etapakako Plana egiteko berriraketa aztertzen dira proposaturiko jarduketak, modu bateratuan. Hala jaiotzen da Irisgarritasun Planaren baitako Ekimen-Planaren lehenengo proposamena, bertan jasoz bide publikoetako, eraikinetako garraio-azpiegituretako eta

komunikazio esparruetako lau-urteko plana. Plana bideragarria izan dadin, lehentasunak jaso behar ditu bere baitan, etapa ezberdinetan banatuz burutu beharreko lanak.

Lehenengo proposamen horrek kostuen estimazio bat egiten du, orokorra. Horrek aukera ematen du emaitza gisa ateratzen denaren berrikusketa egitekoa, nolabait ere, aurrekontuen oreka bilatu eta lehentasunen zerrenda argiago bat erdiesteko.

Honakoak dira lehentasunak ezartzerako garaian kontutan izaten diren irizpideak. Horien ondorioz garatuko dira ibilbide, eraikin, garraio-azpiegitura eta komunikazio sistema lehenetsiak (ikus "Lehentasunerako Irizpideak" atala):

1. Eraikin esanguratsuen inguruneak.
2. Zonalde bakoitzak aurretiaz duen irisgarritasun maila.
3. Garraio publikoaren eragin-esparruak.
4. Aurrikusitako inbertsioen programa.

Plana egikaritzean, lehentasunezko ibilbideek oinarritzko sare irisgarria osatuko dute, herriko kale eta gunek garrantzitsu eta interesagarrienak lotuz. Ordea, gerta daiteke, herritarren batek berariaz eskatzen duelako-edo, ibilbide zehatz batzuen gain jardun beharra, ekimen-planetik kanpo geratu den arren. Halako kasuak, beharra agerikoa dutelako eta presazkoak direlako, egokitu egin beharko dira, nahiz eta ekimen-planetik kanpo izan.

Ulertu behar dena zera da: planaren emaitza gisa ateratako jarduketak udalaren epe luzerako plangintzaren baitan jasota gera daitezkeela, berariazko kostua gutxituz. Hala, kaleren baten, adibidez, zoladura aldatu behar bada, lan horiek probestu daitezke irisgarritasuna ere hobetzeko, planean ezarritako irizpideak jarraotuz. Gauza bera mantenu-lanak egingo diren gunetan. Horrela, planaren baitako kostuak eta epeak ere murriztagoak izango dira, berariaz arituta baino.

Irisgarritasun Planaren azterketa-eremua eraikitako hiria denez (dela espazio publikoetan, dela eraikinetan ere), ponarri gisa hartu diren baldintza teknikoak dira Eusko Jaurlaritzaren 68/2000 Dekretuaren V. Eranskinean jasotakoak. Halaber, Estatuko VIV/561/2010 Agindua eta 173/2010 Erret-Dekretua ere izan dira kontutan, biek eragiten baitiete obra berriei eta birgaitze obrei ere, dela espazio publikoetan (lehenak) edo eraikinetan (bigarrenak).

Irizpide orokor gisa, Plana idazterako garaian, zera hartu da espazio edo zerbitzu irisgarritzat: 68/2000 Dekretuko Eranskinetako baldintza teknikoak betetzen dituenak.

Halaber, goian aipaturiko Estatuko araudiak ere hartu dira haintzat, euskal araudiak diona baino irizpide zorrotzagoak ezartzen dituen kasutan.

Aldiz, erabilgarri gisa kontsideratu dira, goiko irizpide horiek bete ez arren, mugikortasun murriztua duen pertsona batek modu autonomoan erabili ditzakeen espazio edo zerbitzuak. Erabilgarritasun irizpide horiek dira 68/2000 Dekretuaren V. Eranskineko 3.2 artikuluan jasota daudenak.

Aztertzen ari garen elementuak erabilgarritasun irizpideak ere betetzen ez dituenean, ez dela irisgarria esango dugu.

Kasu batzutan, ordea, indarrean dauden araudi ezberdinek ez dute erabat finakzten teknikoki zein betebeharrak izan behar dituen espazio edo zerbitzu batek irisgarri izateko. Hala gertatu ohi da, batik bat, eskaintzen diren zerbitzuetako komunikazio gaitetan, gerta daitekeelako araudia argitaratu ondoren aurrerapen teknologikoak gertatu izana, orokortuz pertsona orok erabiltzeko moduko zerbitzuak ematea. Halakotan, gure eskarmentua hartzen dugu oinarri proposamenak egiterako garaian. Lanean daramatzagun urteetan gaitasunak murriztuak dituztenen elkarte ezberdinekin harremanak izan ditugunez, beraien ikuspegiak jaso eta idatzi izan ditugu Irisgarritasun Planetan.

Datozen orrialdeetan, aipaturiko esparru bakoitza aztertzerako garaian erabili ohi dugun metodologia azalduko dugu.

6.1.- HIRIGINTZA

Behin aztertu beharreko eremuaren definizioa egin denean (udaleko teknikarien lehentasunak eta irizpideak oinarri hartuta egin ohi duguna), bide publikoen analisia burutzen dugu. Hala, ibilbideak zein elementu urbanoak aztertzen ditugu espazio publikoetan. Haien irisgarritasun maila ikusita, eraldaketa eta hobekuntza proposamenak egiten ditugu, horien balorazio ekonomikoa ere eginez, batik bat ibilbide lehenetsien kasuetan.

Honako informazioa jasotzen da, fitxen eta planuen oinarrian:

- Espaloi estuak, 1,80 metro baino zabalera txikiagokoak
- Espaloirik gabeko eremuak
- Dauden plataforma bakarrak
- Bideak
- Urbanizatu gabeko tartekak
- Malden ikerketa
- Oinezko pasabide irisgarriak eta erabilgarriak
- Oinezko pasabideen gabeziak
- Arriskuguneak, kokapen edo diseinuagatik arriskua dakarten hiri-altzariak
- Zoladuren tipologia eta egoera
- Seinaleztapena
- Hiri-elementuak
- Hiri-altzariak
- Txorkoen babesak
- Soinudun semaforoak
- Eskudelen gabeziak
- Obrak eta bestelako elementuak

Kale-tarte bat irisgarria den ala ez ikusteko honakoak aztertuko dira: espaloiaren ezaugarriak (zabalera, tipologia, zoladura), maldak eta hiri-altzarien diseinua eta kokapena.

Jarduketa-proposamenak egiten direnean ondorio hauek izan ditzakete: espaloiak zabaltzea (ala eraikitzea, ez daudenean), hiri-altzariak lekuz aldatzea, kaleen urbanizazioa edo kaleak plataforma bakar bihurtzea.

OINEZKOEN IBILBIDEAK

-  Zoladura jartzea/berritzea
-  Espaloia eraikitzea/berreraikitzea
-  Ibilgailuentzako ibia berreraikitzea
-  Espaloia zabaltzea
-  Berurbanizazio lanak

OINEZKOEN IBIAK

-  Esku-hartzerik gabeko ibia
-  Zoladura aldatzea
-  Zoladura jartzea
-  Ibia berreraikitzea
-  Ibia eraikitzea lehenik dagoen pasabidean
-  Ibia eraikitzea proposaturiko pasabidean
-  Zebra-bidea pintatzea
-  Galtzada goratuko pasabidea

OINEZKOENTZAKO SEMAFOROAK

-  Esku-hartzerik gabeko semaforoa
-  Semaforoa lekuz aldatzea
-  Semaforoari soinua jartzea
-  Semaforoa tokiz aldatu eta soinua jartzea

ESKAILERAK / ARRAPALAK

-  Eskailera egokitzea
-  Maila bakarreko eskailera kentzea
-  Arrapala egokitzea
-  Arrapala eraikitzea
-  Igogailua jartzea

SANEAMENDUA

-  Sareta aldatzea
-  Sareta lineala aldatzea
-  Sareta lineala jartzea

HIRI-ALTZARIAK LEKUZ ALDATZEA

-  Eserlekua
-  Zakarrontzia
-  Edukinontzia
-  Lurperatutako edukinontzia
-  Informazio-panela
-  Bizikleta aparkalekua

INSTALAZIOAK LEKUZ ALDATZEA

-  Kale-argia
-  Konexiodun zutoina
-  Konexiorik gabeko zutoina
-  Instalazioen armairua
-  Iturria
-  Sute-ahoa

ZERBITZUAK LEKUZ ALDATZEA

-  Postontzia
-  Telefono kabina
-  Taxien telefona
-  TAO makina
-  Komun publikoa (kabina)
-  Kioskoa
-  Tabernetako terraza/etxola

ELEMENTU BERDEAK LEKUZ ALDATZEA

-  Zuhaitz-txorkoa
-  Jardinera
-  Elementu apaingarria

TRAFIKO ELEMENTUAK LEKUZ ALDATZEA

-  Mutiloia
-  Trafikoarentzako seinalea
-  Trafikoarentzako semaforoa
-  Autobus geltokiko zutoina
-  Markesina

LAGUNTZA ETA/EDO SEGURTASUNA

-  Eskudela jartzea
-  Baranda lekuz aldatzea
-  Baranda jartzea
-  Arriskuak (edo obrak) zoladuran adieraztea
-  Fazada alboko ibilbidea zoladura bidez adieraztea
-  Oinezkoen pasabideari dagokion seinalea jartzea
-  Oinezko eremuaren sarreran seinalea jartzea
-  Jarleku erreserbatua

Proposamen horiek guztiak prezioen datu-basearekin, berariaz sortuta daukagun hiri-inguruneen egokitzapenerako prezioen datu-basearekin, gurutzatzen dira. Hala, kale-tarte bakoitzaren egokitzapenerako aurrekontua lortzen dugu eta, horien oinarrian, lehenetsi diren ibilbilbide guztien egokitzapenerako aurrekontu orokorrak ere lortzen dira. Hala burutzen da bide publikoetako ekimen-planarentzako aurrekontua.

Ondoren, lortu diren emaitzak aztertzen dira, begirada orokorrarekin. Orduan, kostuak jada ezagututa, lehenetsitako kale-tarteen birdefinizio bat burutzen da, aukera emanten duena, dauden baliabideen oinarrian, lau urteko planaren baitan jasoko diren kale-tarte zehatzak definitzeko. Plan horren baitan jaso gabe gertazen diren tartearak, planaren ondorengo faseetan burutzeko geratzen dira.

6.2.- ERAIKINAK

Udalaren jabegokoak diren eraikinak aztertzen dira, gaur egun duten irisgarritasun mailaren diagnostikoa egiten zaielarik. Ondoren, kasu bakoitzerako proposamenak egiten dira, berariaz. Proposamen horiek ekonomikoki baloratzen dira. Analisi horren guztiaren ondorioz, eraikin bakoitzerako proposamen zehatza lortzen da, bertan proposaturiko jarduketaren aurrekontu propioarekin.

Irizpide orokor gisa zera hartzen da: proposaturiko jarduketa guztien ondorioz, eraikina irisgarri bihurtzea. Hala, eraikinean egin beharreko egokitzapenak eraikina beraren osotasunean egin beharrekoak direla, zatikako lanak saihestuz.

Udaleko teknikariek aztergai diren eraikinetako planoak ematen dizkigutenean hasten da analisi honen guztiaren prozesua. Ondorioz, eraikin bakoitzerako, txosten tekniko bat sortzen da, honako informazioa jasotzen duena:

- A. Diagnostikoa eta egungo egoeraren balorazioa
- B. Konponbiderako proposamenak
- C. Proposatu diren konponbideen balorazio ekonomikoa

Datu horiek guztiak eraikinen ikuskaritzarako fitxetan biltzen dira. Fitxa hori eraikinaren eremu edo esparru desberdinen arabera dago banatua. Hala, esparru horietako bakoitzaren baitan dauden kategoriak aztertzen dira, aplikagarri den araudiaren araberrako parametro guztiak jasoz.

- 1. KANPOKALDEA:** Eraikinaren baitako espazioa den arren, kanpokaldean dagoena da, bide publikoen eta eraikinerako sarreraren artean dagoena.

Esparruak	Kategoriak
1.1. Sarrera nagusia - beste sarrerak	1.1.1. Ibilbidea
	1.1.2. Kanpoko atea
1.2. Kanpoko espazioak	1.2.1. Ibilbidea
	1.2.2. Aparkaleku erreserbatua
	1.2.3. Harmailak
	1.2.4. Kirol-pista
	1.2.5. Igerilekua

- 2. ERAIKINERAKO SARRERA:** Atal honetan aztertzen da eraikinaren barrukalderako sarrera. Kasu batzutan, zuzenean gertatuko da kaletik. Besteetan, aldiz, goian aipaturiko kanpokaldeko espazioetatik.

Esparruak	Kategoriak
2.1. Ate nagusia / bestelako ateak	2.1.1. Ibilbidea
	2.1.2. Atea

- 3. ERAIKINAREN BARRUKALDEA:** Hemen aztertzen dira eraikinaren barruko ibilbide guztiak eta baita gelak ere, nahiz eta batzuk erabilera publikorik ez izan.

Esparruak	Kategoriak
3.1. Harrera	3.1. Harrera
3.2. Ibilbide horizontala	3.2. Ibilbidea
3.3. Ibilbide bertikala	3.3.1. Igogailua
	3.3.2. Eskailera
	3.3.3. Arrapala
	3.3.4. Atea
3.4. Gelak eta aretoak	3.4.1. Erabilera komuneko gela
3.5. Komunak	3.5.1. Komun egokitua
	3.5.2. Egokitu gabeko komuna
3.6. Aldagelak eta dutexak	3.6.1. Aldagela egokitua

Ikuskaritzako fitxan jasotako datuekin, plano gainean marraztutako eraberritze-proposamenak egiten dira eta, horien oinarrian, egin beharreko lanak zehazten. Txostenetan, esparru eta kategoria bakoitzerako deskribapenak jasotzen dira, proposamen zehatzekin batera, irisgarritasunarekin harremana duen edozein gai ikusten delarik ere.

Proposamen horiek guztiak prezioen datu-basearekin gurutzatu eta eraikinaren egokitzapenerako aurrekontua lortzen da. Lanaren emaitza osoa eraikin bakoitzaren txostenean jasotzen da.

6.3.- GARRAIOA

Garraio-azpiegituren analisiaren baitan honakoak jasotzen dira: garraiobide publikoak zerbitzatzen dituzten elementu finkoak, hala nola, markesinak eta geralekuen seinale bertikalak. Horien kokapena eta diseinua aztertzen dira eta egokitzapenerako behar dituzten lanak proposatzen. Halaber, aparkaleku erreserbatuen kokapena eta diseinua aztertzen dira, erabilera publikoa dutenean. Herrian zehar kokatzen diren lekuen inguruko azterketa eta proposamenak ere egiten dira.

Udalak bere jabegokoak dituen bestelako garraio-azpiegiturak dauden kasuetan, horiek ere eztertzen dira, adibidez, udalaren baitako autobus zerbitzuetako ibilgailuak. Kasu horietan, ibilgailuetarako sarrerez gain, barruan dauden elkarrekintzarako sistemak ere aztertzen dira.

Hasteko, azpiegitura horietako guztietako elementuen datuak biltzen dira. Datu horiek, berariaz sorturiko fitxen bidez biltzen dira.

Aztertu diren elementuak, irisgarritasun araudiak ezertzen dituen alderdi guztien gain aztertzen dira, kokapenari, seinaleztapenari eta jasotzen duten informazioari dagokionean. Kasu batzutan, araudia lausoa denetan, Pertsona Ororentzako Diseinuaren irizpideak ere izaten dira kontuan.

Azkenik, analisi hori paperera eramaten da, txosten moduan, Irisgarritasun Planaren baitako Garraio-sistemei dagokion liburukian jaso proposamen oro.

6.4.- KOMUNIKAZIOA

Azkenik, komunikazioaren gaia dago. Ez da esparru independente bat, gainerakoetan (bide publikoetan, eraikinetan eta garraioan) zeharka agertzen dena baizik. Hala, esparru bakoitzeko analisia egiten denean kontutan izaten dira: seinaleztapen grafiko eta akustikoa bide publikoetan zein eraikinetan eta autobus geltokietan. Analisi horren ondorioz proposatzen diren hobekuntzak dagokion esparruan biltzen dira, helburu bakarrarekin: esparru horretarako egiten diren proposamenak osoak izan daitezela (dagozkien komunikazio lanak ere beraietan jaso). Halere, berariazko liburuki bat ere egiten da, komunikazioaren arazoari ikuspegi propio bat edukitzeko aukera emanez.

7.- ARAUDIA

Europar Batasunaren baitan, **Oinarrizko Eskubideen Gutuna** da aipatzekoa (2007/C 303/01. 2007ko abenduaren 14koa) . Haren 26. artikuluan jasotzen da, gaitasun murrizteko pertsonen integrazioari dagokionean, autonomiarako, gizarte-integraziorako, integrazio profesionalerako eta bizitza kolektiboan parte-hartzeko eskubidea bermatze aldera, neurri positiboetarako duten eskubidea.

Jarraian, irisgarritasunaren esparruan aplikagarria den estatu-mailako eta autonomia-mailako araudiaren zerrenda ez-zehatza ematen da:

Estatu mailan:

-. 51/2003 Legea, gaitasun murriztuko pertsonen aukera berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzkoa.

<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2003-22066>

-. 1417/2006 Errege-Dekretua, abenduaren 1ekoa, gaitasun murriztuko pertsonen aukera berdintasunean, diskriminaziorik ezean eta irisgarritasunean gerta daitezkeen kexa zein erreklamazioak konpontzeko sistema arbitrala ezartzen duena.

<https://www.boe.es/eli/es/rd/2006/12/01/1417>

-. 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, dependentzia egoeran dauden pertsonen Autonomia Pertsonala eta Zaintza Sustatzekoa.

<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2006-21990>

-. 3/2007 Lege Organikoa, maiatzaren 22koa, gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasunarena.

<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-6115>

-. 11/2007 Legea, ekainaren 22koa, herritarren Zerbitzu Publikoetarako irisbideelektronikoarena.

<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2007-12352>

-. 27/2007 Legea, otsailaren 23koa, Espainiako zeinu-hizkuntzak aintzat hartzen dituen, eta gorren, entzumena murriztuta dutenen eta gorritsuen ahozko komunikaziorako laguntza-tresnak arautzen dituen.

<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2007-18476>

-. 49/2007 Legea, abenduaren 26koa, gaitasun murriztuko pertsonen aukera berdintasunean, diskriminaziorik ezean eta irisgarritasunean gerta daitezkeen arau-hausteen zigor-erregimena ezartzen duena.

<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2007-22293>

-. 55/2007 Legea, abenduaren 28koa, Zinemarena, aretoetarako sarbide fisikoaz gain, bertan erakusten diren lanen irisgarritasunerako neurri ezberdinak jasotzen dituen.

<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2007-22439>

-. 56/2007 Legea, abenduaren 28koa, Informazio-gizartea sustatzeko neurriena. Interneteko webguneetara sartzeko irisgarritasunari buruzko neurriak jasotzen ditu, gaitasun murrizteko edo adineko pertsonen sarbidea bermatzen duena.

<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2007-22440>

-. 366/2007 Errege - Dekretua, martxoaren 16koa, Gaitasun murrizteko pertsonen Estatuko Administrazio Orokorrarekin dituzten harremanetan irisgarritasunerako eta diskriminazioa ekiditeko baldintzak jartzen dituen.

<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2007-6239>

-. 505/2007 Errege- Dekretua, apirilaren 20koa, espazio publiko hiritartu zein eraikinetarako irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarritzko baldintzak ezartzen dituen, gaitasun murrizteko pertsonentzat.

<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2007-9607>

-. 1494/2007 Errege - Dekretua, azaroaren 12koa, gaitasun murriztuko pertsonen teknologiarako eta informazioaren gizarteak eskainitako produktu eta zerbitzuetarako zein gizarte-komunikabideetarako duten irisbidea arautzen duena.

<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2007-19968>

-. 1544/2007 Errege - Dekretua, azaroaren 23koa, gaitasun murrizteko pertsonen garraibide ezberdinetarako irisbidea izateko irisgarritasun baldintza oinarritzkoak ezartzen dituen. Bestelako neurrien aretan, garraibide publikoetako zerbitzuen egokitzapenerako neurriak ere derrigorrezko bihurtzen ditu.

-. 1612/2007 Errege- Dekretua, abenduaren 7koa, botoa modu irisgarrian emateko aukera arautzen duena. Bereziki, ikusmen arazoak dituzten pertsonen bideratua da.

<https://www.boe.es/buscar/pdf/2007/BOE-A-2007-21089-consolidado.pdf>

-. INT/3817/2007 Agindua, abenduaren 21ekoa, goian aipaturiko Erret-Aginduak ezarritakoaren garapen gisa, boto irisgarriaren eskubidea bideratzeko prozedura zehazten du.

<https://www.boe.es/eli/es/o/2007/12/21/int3817>.

-. 1544/2007 Errege-Dekretua, azaroaren 23koa, desgaitasuna duten pertsonentzako garraibideetan sartzeko eta horiek erabiltzeko irisgarritasunaren eta diskriminaziorik gabe oinarritzko baldintzak arautzen dituena.

<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2007-20785>

-. Gaitasun Murritzeko Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioa eta Konbentzioaren Borondatezko Protokoloa Berresteko Tresnak (2008ko apirilaren 21eko EAO, 96 zenbakiduna, eta 2008ko apirilaren 21ko EAO, 97 zenbakiduna, hurrenez hurren).

<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2008-6963>

-. 1671/2009 Errege - Dekretua, azaroaren 6koa, zeinaren bidez 11/2007 Legea, ekainaren 22koa, garatzen den, alegia, herritarren Zerbitzu Publikoetarako irisbide elektronikoarena.

<https://boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2009-18358>

-. 1/2009 Legea, martxoaren 25ekoa, zeinaren bidez 8/1957 Legea, ekainaren 8koa, Erregistro Zibilar buruzkoa, eta 41/2003 Legea, azaroaren 18koa, eraldatzen diren. Lehenak, gaitasun murritzeko pertsonen gaitasun-galtzearen, zaintza-arduren eta babesturiko ondasunen administrarien gain eragiten du. Bigarrenak, helburu berarekin, Kode Zibila eta Epaiaketaratze Zibilararen Legeko zerga-araudiaren gain eragiten du.

<https://www.boe.es/eli/es/l/2009/03/25/1>

-. 25/2009 Legea, abenduaren 22koa, bestelako hainbat lege eraldatzen dituena, jardueri eta haietan parte-hartze askea bermatu eta egokituz.

<https://www.boe.es/eli/es/l/2009/12/22/25>

-. 173/2010 Errege Dekretua, otsailaren 19koa, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen duena, irisgarritasunari eta desgaitasuna duten pertsonen diskriminaziorik ezari dagokienez.

<https://www.boe.es/eli/es/rd/2010/02/19/173>

-. VIV/561/2010 Agindua, otsailaren 1ekoa, espazio publiko urbanizatueta sartzeko eta horiek erabiltzeko irisgarritasunari eta diskriminaziorik ez izateari buruzko oinarritzko baldintzen dokumentu teknika garatzen duena.

<https://www.boe.es/eli/es/o/2010/02/01/viv561>

Autonomia Erkidego mailan:

-. 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzekoa.

<https://www.boe.es/buscar/pdf/2012/BOE-A-2012-541-consolidado.pdf>

-. 68/2000 Dekretua – apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena.

https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/contenidos/decreto/bopv200002494/es_def/index.shtml

-. 256/2000 Dekretua – 2000ko abenduaren 5koa. Dekretu honen bidez, ibilgailua aparkalekuan uzteko ezinduentzako txartela arautu eta Europako Batasuneko estandarri egokitu da.

<https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2000/12/05/256/dof/eus/html/webleg00-confich/eu/>

-. 126/2001 Dekretua – uztailaren 10ekoa, Garraioan Irisgarritasun-Baldintzei buruzko Arau Teknikoak onesten dituena.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2001/07/0104201a.pdf>

-. 42/2005 Dekretua – 68/2000 Dekretuaren aldaketa uztailaren 10ekoa, Garraioan Irisgarritasun-Baldintzei buruzko Arau Teknikoak onesten dituena.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2005/03/0501181a.pdf>

-. 2/2006 Legea –ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2006003776>

-. 10/2007 Legea, ekainaren 29koa, Desgaitasuna duten Pertsonen Laguntzeko Txakurrei buruzkoa.

<https://www.boe.es/buscar/pdf/2011/BOE-A-2011-16753-consolidado.pdf>

I. ERANSKINA – HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AZPEITiko biztanleei inkesta bat egin zaie, herritarrek udalerriko irisgarritasunari buruzko iritzia eta iradokizunak eman zitzaten, betiere kontuan hartuta herritarrek ezagutzen dituztela hobekien hurbileko hiri-inguruneko gabeziak eta beharrak.


Iradokizunen postontzi bat ere ireki da posta elektroniko baten bidez, herritar guztientzat irekia.

Hona hemen herritarren parte-hartze horren emaitza:

DATU ESTATISTIKOAK / DATOS ESTADÍSTICOS


GENEROA / GÉNERO

35 respuestas




ADINA / EDAD

35 respuestas




ZER HARREMAN DUZU AZPEITIAREKIN? / RELACIÓN CON AZPEITIA

35 respuestas



HORRELAKO EGOERARIK BIZI DUZU EDO BIZI IZAN DUZU? / ¿VIVE O HA VIVIDO ALGUNA DE ESTAS SITUACIONES?


35 respuestas



IRISGARRITASUNA BIDE PUBLIKOAN / ACCESIBILIDAD EN LA VÍA PÚBLICA


ZURETZAT OHIKOAK DIREN HERRI-EREMUAK ADIERAZI (Markatu komenigarritzat jotzen dituzunak) / ZONAS DEL PUEBLO POR LAS QUE HABITUALMENTE CAMINA (Marcar las que crea conveniente)

35 respuestas



ZEIN EREMUTAN AURKITU DUZU IRISGARritasun-ARAZO GEHIEN? (Markatu komenigarritzat jotzen dituzunak) / ¿EN QUÉ ZONAS HA ENCONTRADO MÁS PROBLEMAS DE ACCESIBILIDAD? (Marcar las que crea conveniente)

35 respuestas




BIDE PUBLIKOAN AURKITUTAKO IRISGARritasun-ARAZO GARRANTZITSUENEN
BERRI EMAN, ZURE USTEZ / COMENTE LOS PROBLEMAS DE ACCESIBILIDAD MÁS
RELEVANTES, A SU JUICIO, ENCONTRADOS EN LA VÍA PÚBLICA

- .- Zebra bideen alboan bolumen handiko ibilgailuak aparkatuta egotean, bidea gurutzatzeko bisibilitatea mugatzen dute. Bestalde, zebra-bide falta sumatzen dut inguru batzuetan.
- .- Iberotarren plazatik edo tren museotik eroskira karroarekin joateko bidea hobeto egokitu beharko litzatekeela uzte dut. Rotondatik eroskira doan bidean Blug enpresaren alderditik, gazte lokalen ondotik, kotxeak aparkatzen dituzte eta karretera erditik joan behar izaten da tramo batean... Hori eragozteko pibote batzuk edo ipintzea kotxeak aparkatzea galerezteko.
- .- Lur zorua arrixkutzua zulo askorekin
- .- Espaloi batzuta igotzeko koska dexentekoak daude. Eroski, laborala, araneko txino aldien... Kotxeak espaloi gaineta igota egoten dira eta tarteik ez silla pasatzeko Iberotarren plazan trenbide aldea doblefilan kotxe ugari Loiolan ez dao iñolaz ere forumea sillakin allegau!!!
- .- "Irureta Altzariak" zen dendaren aurrean dagoen zebra bidea gurutzatzerakoan, ume kotxearekin zailtasun handiak daude, espaloitik errepidera desnibel handia baitago. Horrez gain, forum aldean eskailera antzeko bi koska daude. Beraz ume kotxearekin ezinezkoa da espaloira igotzea. "Kiruri Jatetxe" aldetik ere espaloiean koskak daude eta "forum dendara" gerturatzea zaila dago momentu honetan.
- .- Kotxiek o furgonetak espaloyen o paso zebratan
- .- Espaloiak puskatuta
- .- Adokina, lurzorua irregularra bihurtzen du, ezinezkoa bakarrik ibiltzea. Espaloiak altualgoak eta inolako ertzik gabekoak izan beharko lukete. Juantxo txiki aurrean dagoenaren bezelakoak, altxatuak eta zeharo lisoak.
- .- En plaza Olatz faltan pasos cebra, por la acera no se puede pasar por aparcar los coches e invadir las aceras, escaleras del caracol rotas y en invierno llenas de agua y sucias
- Arana Goikoako espaloiak oso zaharkituta daude
- .- Situado entre los portales 5 y 8 de Etxe Alai
- .- Aceras y pasos de cebra resbaladizas
- .- Aldapa irristakorra arana goikoa kalean barrena
- .- Urrestillako kalebarrena kalean kotxeak eta oinezkoak uztartzeko zailtasunak. Asteburutan oinezkotzeak lasaitasuna emango luke.
- .- Alde zaharrean auto gehiegi

- OINEZKON KULTURA FALTA. Kotxeak, txirrinak, patineteak non-nahi...
- Juantxo txiki azpiko aterpie bustiyekin oso peligrosue
- Olatz plazan bizi naiz eta Aranatik plazoleta iristean arazo pila bat ditugu espaloia istua delako, kotxeak espaloi erdia okupatzen dutelako eta ez dagoelako zebrabiderik pasatzeko
- Aceras no condicionadas

USTE DUZU BEHARREZKOA DELA HIRI-IGOGAILU BERRIAK EZARTZEA? /
¿CREE NECESARIA LA IMPLANTACIÓN DE NUEVOS ASCENSORES
URBANOS?

35 respuestas



ERANTZUNA BAIEZKOA BADA, ZEHAZTU NON / EN CASO AFIRMATIVO, ¿EN QUÉ
LUGAR?

- Arana Goikoa
- Etxe Alai y Santutxo zona alta
- Aranaga- Etxealai

ZEIN PARKE EDO PLAZAK ERABILTZEN DITUZU GEHIEN? / ¿QUÉ PARQUES O PLAZAS DEL MUNICIPIO UTILIZA MÁS FRECUENTEMENTE?

- Parke pirata
- Loiolabide
- Herriko plaza eta Izarraitzko parkea
- Iberotarren plazatik alde zaharra, zelai luze, plaza, Garmendipera eroski ondoko bidegorritik. Bizikletaz iberotarren plazatik ikasberri aldera. Haurrak Ikasberritik Salbe auzora.
- Herriko plaza
- Juan XXIII ,zelai luze
- Loiolako zelaiak.
- Plaza
- Barco pirata, frontón txiki
- Garmendikoa
- Alde zaharretik Iraurgira bitartekoak
- Plaza mayor
- Plaza nagusia
- Plaza nagusia, Olazko amaren plaza
- DA tabernaren inguruko plaza, Ildefonso Gurrutxagako plaza
- Plaza Olatz, Palacio Emparan
- Arana Goikoako parkea
- San Agustin y Santutxo
- Herriko enparantza
- plaza nagusia, Urrestillako plaza
- Enparantza nagusia
- Damaso Azkue Plaza eta Alde zaharretik
- Parke gutxi daude ondo
- Olatz plazakoa
- Plaza de la parte vieja
- PLAZA NAGUSIA, OLAZKO AMAREN, DAMASO AZKUE
- Herriko plaza, Loiola, Etxe zurito plaza
- loiola

ZEIN PARKE EDO PLAZATAN AURKITU DUZU IRISGARritASUN-ARAZO GEHIEN? /
¿EN QUÉ PARQUES O PLAZAS HA ENCONTRADO MÁS PROBLEMAS DE
ACCESIBILIDAD?

- Iberotarren plazatik eroskirako pasaran.
- Ez dut aurkitu
- Loiolako zelaiaetan eta harzubiko parkean
- Garmendipe aldean
- Barco pirata
- Inon ez
- Pirata
- En el parque que esta en grupo agirre. El suelo esta roto, totalmente peligroso.
- Plazak erdiko lurzoruak laukitik laukirs tartrak ditu
- Parke pirata eta Betarratako parkea
- Olazko amaren plazakoak
- En plaza Olatz su llego desde el comienzo de Arana Kalea y quiero llegar al número 7 tengo que dar toda la vuelta a la plaza debido a coches mal aparcados, falta de pasos centro y es imposible atravesar desde los basureros hasta la plaza, es muy estrecha y los coches impiden el paso
- Arana Goikoa
- Ninguno
- Etxe Alai
- Garmendipe
- ez dut arazorik aurkitu
- Iñun ez
- EZ
- Lur geyenak gaxki daude loiola bide gorrikue t damasonekuek zalbatzei
- Irrisgarritasun arazoak baino gehiago mantenimendu arazoak daude. Oso zikinak daude eta puskatutako gauzak ez dira konpontzen
- Parque de garmendipe
- ninguno

ZURE USTEZ, ZEINTZUK DIRA PARKE ETA PLAZETAN AURKITU DITUZUN IRISGARritasun-ARAZO GARRANTZITSUENAK? / COMENTE LOS PROBLEMAS DE ACCESIBILIDAD MÁS RELEVANTES, A SU JUICIO, ENCONTRADOS EN PARQUES Y PLAZAS

- Koxkak

- San Juandegi auzoan, etxeen barrukaldetik gelditzen diren espaloi handi hoietan, kotxe eta bestelako ibilgailuak edonon/edonola aparkatuta egotea.

- Kotxeak gaizki aparkatuta egotea

- Haur parkeei dagokionez, azpeitia osoan kolunpio egokiturik ez dagoela ohartu naiz. Eta horrelako beharrak ditzuzten haurrek ere kolunpioan ibiltzeko eskubidea badutela iruditzen zait.(Azkoitiko estalitako parkean jarri dute) Harzubiako haur parkea ere ez da oso egokia. Izan ere aldaketan egin zirenean, lurrean pinu azalak edo jarri zituzten eta ondorioz haur txikiek ezin dute bertan oinez ibili estabilitaterik ez baitute mantendu.

- Bestalde, Loiolako zelaietaki bideak harri txintxorrez edo soltez eginda daude eta polita da baina ume kotxearekin edota gurpildun ahulkiarekin aurrera egitea zaila da leku batzuetan, izan ere harri gehiegi dago eta ondorioz, gurpilak ondoratu egiten dira.

- Ez dago parke inklusiborik. Zarautzen esaterako gurpildun aulkian daudenentzat kulunpioak daude...

- Lurra Alda tu dutenean ahulki arek un ibiltzea zai lago da

- Ondo daude

- Al patio del grupo agirre, por ejemplo los de los portales N1 y N2, no pueden bajar una silla de ruedas, hay cuestras muy peligrosas.

- Jarri dituzuen parke "natural" itxurakin oso zikinak, ezegokiak eta arriskutsuak dira umenetzat. Trabiesakin mugatzen diren koska zorrotz eta handiak dira, pinu azalak zikinak...

- Aranatik zatozenean, oso zaila egiten da Centerpoint edo Aradi zenaren ingurura gerturatzea. Inguru horretara gerturatzeko plaza osoari buelta eman behar zaio, ezpaitago bertara hobe iristerik. Mugikortasun arazoak dituen pertsona batekin bizi naiz (oraindik ez du gurpildun aulkia erabiltzen), eta beti autoekin (mugitzen direnak eta gaizki aparkatuta daudenekin) traban ibiltzen gara

- espaloiak estuak eta zaharkituta


- Ninguno

- Etxe Alai, cuesta y mucho trafico

- Parques de niños sin estar cubiertos, que si lo estarían se aprovecharía mucho mas durante todo el año teniendo en cuenta que llueve casi todo el año. En loiolako inazio etorbidea el parque es muy pequeño para todos los niños que residen
- ez dut aurkitu
- Auto gehiegi
- EZ
- Irristalayek bñ geyo puskaute daude
- Arazo gehienak Olatz plazako atzeko partean aurkitzen ditut. Basurak eta kotxeak padoa ostopatzen dute
- Entradas a los parques
- ninguno


ZURE USTEZ, HIRI-ALTZARIEN ARTEAN, ZEIN ELEMENTUK IZAN BEHARKO LUKETE BESTE DISEINUREN BAT ERABILERA ERRAZTEKO? / QUÉ ELEMENTOS DE MOBILIARIO URBANO CREE QUE DEBERÍAN PRESENTAR UN DISEÑO DIFERENTE QUE FACILITE SU USO?

35 respuestas



SEGURTASUN FALTA SENTITU DUZU ESPAZIO PUBLIKOKO GUNEREN BATETIK IBILTZEAN? / ¿HA SENTIDO FALTA DE SEGURIDAD AL TRANSITAR POR ALGUNA ZONA DEL ESPACIO PÚBLICO?

35 respuestas




ZEIN GUNEETAN SENTITU DUZU SEGURTASUN FALTA? / ¿EN QUÉ ZONAS HA SENTIDO FALTA DE SEGURIDAD? /

- Une oro, herri guztian. Ibilgailuak edozein erata uzten direlako, bisibilitatea mugatuz eta oinezkoen ibilbideak oztopatuz, abiadura ahaztu gabe. Semaforoak gorrian egonik ere, behin baino gehiagotan pasa izan dira kotxeak bidea gurutzatzen hasi ondoren.
- Iberotarren plazatik eroskira dian bidean
- Etxe alai auzoan
- Zelai luzetik gauez
- Xanjuandeiko eroskiko pasozebran Ikastola berriko aldameneko paso zebran Artzubiko paso zebran Errebalien
- Nire ustez, tabernetan egin behar da irisgarritasun plana. Korralera sartzeko koxka dago. Topan komunera joateko eskailerak. Zuhatzen konunera jeixteko eskailerak eta bertara sartzeko koxka.... eta horrela beste hainbat.
- Polikiroldegian ere, eskailerak daude jeixteko. Beste bide bat egon badago baina ez da beterr praktikoa.
- Garmendin testigos de Jehová daon inguru hortan dauden eskailerak....
- Alde zaharreko adokinetan
- En el patio de agirre auzunea

- . Helduleku faltak
- . Olazko Amaren plazan, Jose de Artetxen ... lurreko baldosa suelteak eta bukatu gabe daukezuen lurra Pastokua aurrean. Bestalde 1977 Matxinada kalean (anbulategiko zubitik hartzubiko zubi bitartekoa) ibaiondoko harrizko petrilea alturaz ez dago seguru, bajuegia dago eta gero eta jende gehiagok erabiltzen du petrill hori, ibaiaren bi aldeetan (bai tabernak dauden aldea eta bai Eroski eta Autoeskola Urola aldekoa). Segurtasun barandila bat jartzeko eskaera egiten dizuet. Susto handi bat pasatzerako!!!
- . Zebra bideak pasatzean, batipat neguan, goiz iluntzen duenean, eta eguraldi txarrarekin bisibilitate eskasa dagoenean. Auto gidariari kosta egiten zaio inor gurutzatzeko zain dagoen ikustea. Horregatik zebra bideetako argiztapena hobetzea edo beraientzat espezifikoa jartzea onuragarri ikusten dut. Gidari zein oinezko bezala ikusi dut arriskua
- . Debido a las bibliotecas que invaden las aceras a gran velocidad y derrapando y no las ves
- . Arana Goikoako zebra bidea
- . Jose de Arteche y Etxe Alai
- . En la zona de sanjuandegi hacia el nuevo puente , toda esa calle de detras de las piscinas y pasando el puente hacia las casas de loiolabide, sobre todo alfinal las ultimas viviendas que dan ya hacia la basilica. Las luces al no ser led no iluminan tanto como las amarillas que tienen las farolas
- . urrestillako kalebarrena kalea
- . Industrialdean, Goenan
- . Alde zaharra. Urrestillarako bidegorrian
- . Sanjuandegiko azpiko pasadizoan

ANTZEMEN AL DUZU GAUEKO ARGIZTAPEN FALTA ESPAZIO PUBLIKOKO GUNEREN BATEAN? / ¿HA DETECTADO FALTA DE ILUMINACIÓN NOCTURNA EN ALGUNA ZONA DEL ESPACIO PÚBLICO?

35 respuestas




ERANTZUNA BAIEZKOA BADA, ZEHAZTU NON / EN CASO AFIRMATIVO, CONCRETE DÓNDE

- Garmendi auzoan esaterako. Edo loiolabiden.
- Generalean, faroletako argiak ez dute argi bixia eta neguan kaleak iluntzean oso ilun geratzen dira, argi gehiago,- foko indartsuagoak ondo egongo ziren
- 1977 Matxinada kalean. Etxe berri parean, Alderdi Eder aurrean argi txuriak eta argitsuak jarri dituzue eta aldiz bestaldea dauden ibaiondoko paseoa, argi zahar, hori eta ilunekin gelditu dira (Eroski txiki eta autoeskola Urola aurrekoa). Lotsagarria da nola ez dituzuen detaile horiek zaintzen eta paseo eta kale berdina berdina zaintzen.
- Zebra bideetan, batipat neguan. Argi laranjak ere (faroletakoak) iluntasun sentzazioa areagotzen duela iruditzen zait
- Egia esan, urtebetetik gora da gauez edo ilunpetan kalean ibili ez naizela eta galdera honi ezingo nioke tajuz erantzun.
- En plaza Olatz números 6-7-8
- Loiolabide hacia el portal numero 61 las luces son amarillas en vez de led que iluminarian mas y al final de esas casas entre las terrazas y la zona de verde
- urrestillako bide gorriko zatian
- Damaso Azkue Plazan, ordu aldaketekin argiteria berandu pizten da.
- Zelai luzen argitasun gutxi dago
- Por vandalismo zona de subterranos
- industrialdea

IRISGARRITASUNA GARRAIOAN / ACCESIBILIDAD EN EL TRANSPORTE


ADIERAZI AUTOBUS-GELTOKIAK ERABILTZEKO ZAILTASUN NAGUSIEAK /
INDIQUE LAS PRINCIPALES DIFICULTADES EN EL USO DE LAS PARADAS DE
AUTOBÚS

35 respuestas



ANTZEMAN AL DUZU APARKALEKU ERRESERBATUEN GABEZIA? / ¿HA
DETECTADO CARENCIA DE APARCAMIENTOS RESERVADOS? /

35 respuestas




ERANTZUNA BAIIEZKOA BADA, ADIERAZI EREMUA / EN CASO AFIRMATIVO, INDICAR LA ZONA

- Iberotarren plazan
- Etxe alai, arana goikoa, santutxo gunean
- Alde zarreko biztaleentzat Basen proiektu bat eta pibote hidraulikoak jarri ziren baina ez daude martxan
- Arana Goikoa , gero eta zallagoa da aparkatzea
- Zona biblioteca Emparan

IRISGARRITASUNA ERAIKINETEN / ACCESIBILIDAD EN LOS EDIFICIOS


ERAIKIN HAUETATIK ZEINTZUK ERABILTZEN DITUZU SARRITAN? (Gehienez aukeratu 3) / ¿CUÁLES DE ESTOS EDIFICIOS UTILIZA CON MAYOR FRECUENCIA? (Máximo 3)

35 respuestas




ERAIKIN HORIETAKO ZEINETAN AURKITU DIREN IRISGARritasun-
ARAZOAK PREMIAZ KONPONDU BEHAR DIRELA USTE DUZU (Gehienez
aukeratu 5) / ¿EN CUALES DE ESTOS EDIFICIOS SE HA ENCONTRADO
DIFICULTADES DE ACCESIBILIDAD QUE LE PAREZCA URGENTE
SOLUCIONAR? (Máximo 5)

35 respuestas



AURKITUTAKO ARAZOEN ARTEAN, ADIERAZI ZURE USTEZ
GARRANTZITSUENAK DIRENAK (Gehienez aukeratu 5) / DE LOS
PROBLEMAS QUE SE HA ENCONTRADO, INDIQUE AQUELLOS QUE LE
PAREZCAN MÁS RELEVANTES (Máximo 5)


35 respuestas



IRISGARRITASUNA KOMUNIKAZIOAN / ACCESIBILIDAD EN LA COMUNICACIÓN

AZPEITIKO UDALAREN WEBGUNEA IRISGARRIA DELA USTE DUZU? / ¿CREE QUE LA PÁGINA WEB DEL AYUNTAMIENTO DE AZPEITI ES SUFICIENTEMENTE ACCESIBLE?

35 respuestas



ERANTZUNA BAIEZKOA BADA, AURKITUTAKO ARAZOAK DESKRIBATU / EN CASO AFIRMATIVO, INDICAR LOS PROBLEMAS DETECTADOS

- Bilaketa sistemak ez du oso ondo funtzionatzen
- Garbia da
- Ez da hau galdera zuzena aurrekoarekin lotuta. WEB oso zaharkitu, (hainabta datu zaharrak) Ez da atsegina. Ez dago eguneratua.
- Ez ditut arazorik aurkitu

IRADOKIZUNAK / SUGERENCIAS

IDATZI JARRAIAN AZPEITIREN IRISGARRITASUNARI BURUZ EGIN NAHI DITUZUN IRADOKIZUN GUZTIAK, AURREKO GALDETEGIAN JASO EZ DIRENAK / ESCRIBA A CONTINUACIÓN TODAS AQUELLAS SUGERENCIAS QUE DESEE REALIZAR SOBRE LA ACCESIBILIDAD DE AZPEITI Y QUE NO HAYAN QUEDADO REFLEJADAS EN EL CUESTIONARIO ANTERIOR

- Loiolabiden (ikasberriren paraleloan), autobusen ibilbidea bertatik igarotzeko erabakia hartu zenean, bideen noranzkoa ere aldatu zen. Hondakinen edukiontzi batzuk kendu ziren, eta ondorioz bizilagun batzuk "zig-zag" batean ibili behar dugu,

hondakinen gunea aldatu zaigulako etxe ingurukoa kenduz. Zebra-bideak falta dira, eta aldi berean, hondakinentzako gunen ziren horiek orain "aparkamentu" bezala erabiltzen dira, komila artean idatzi dut, berez ez direlako hala, eta ez daudelako ezta margotuta ere. Aldi berean, oso estuak dira, eta askotan kotxeak kanporantza gelditzen dira. Nik uste dut, udalak bizigune honen irisgarritasunari buelta bat eman beharko liokeela, bizilagun asko baigande inguruan eta bereziki, oinezkoen segurtasuna bermatzen saiatu beharko lukeela.

-. Aurrez esan bezala, tabernetan egin behar da lana gai honen inguruan.

Bestalde pasozebretan soinua jarri beharko litzateke, itxuentzako.

-. Herriko auzo batzuk utzi xamar daude, agirre auzunea, garmendi hortik así eta landeta arte

-. Ibiltzeko arazoak dituzten pertsonak. Bakarrik ibil arren, kontuz ibili beharra da eta sarri deskantsatu beharra. Euria dagoenean ez dute atera nahi izaten, aterpeetan bankoak faltan botatzen dituztelako. Pixkat ibili ondoren, pixkat exeri beharra izaten baitute. Eta ia banko guztian euritan egoten dira. Alde zaharreko adokinekin erortzeko bildurrez ibiltzen dira. Harri handi xapalak hobeak dira. Liburutegi aurrekoak adibidez.

-. Agirre Auzuneako barruko patioa "totalmente abandonate dago". 40 urtien ez da ezer egin bertan.

-. Lurzoru guztiz planoak izan behar dute, ixkiñarik gabr, adokin, koska etabar gabe, espaloiak juantxo txiki aurrekoak bezelakoak, horrela bai gurgildun ahulikiak, bai ume kotxearekin eta bedtelakoak ez dute indarrik egin behar edo bertan kateatuta estropuz egiteko bildurrik, beren ibilera ez baitute aldatzwn. Altuago denez, kotxean doanaren bisibilitatea asko hobetzen du, oinezkoa plano altuagoan denez hobeto ikusten delako

-. Piktograma bidezko sinboloak jarri daiteke herriko eraikin nagusien sarreretan.

-. Arana Goikoan aparkatzeko dugu arazorik haundiena

-. Gure herria nahiko ondo dago, ez det ikusten aparteko arazorik

-. ANIZTASUN FUNZIONALA duten guztiekiko enpatia eta baliabideak eskura izatea. Komunikaziorako arazo ugari dituzte. Ez dago egokitzen automatikoki. Bazterutak dira. EZ DAGO INKLUSORIK.

-. Xanjuandeiko atzeko parkin la salben komun publikuek jartzie

-. Nei konkretuki askotan gurgildun-aulkiyekin pasatzie tokatze zaiten zonie aztertuko nuke "PRAT" Kafetei aurreko zebra bidie da Arana kalien. Kale aldetik nuela "Studio D3" aldeko espaloitik Loiola aldea ezta gauza haundiye baino farola dao pare parien, koxkatxue geo eta zebra bidie pasau ta gero apenas dao koxkaik baino espaloie inklinauta dao. Eztet esaten desastre daonik baino eztao bate eroso. Batipat daon

koxkatxueatik eta ondoren daon espaloien inklinaziyueatik. Eta koxkatxuek beste toki batzutan e toka zaizkit. Eta bakarrik ibiltzeienak beayen aulkiyen zailtasun geyo izango debela iruitzezat.

- Loiolan autobusen paratik loiolako explanada juteko espaloia egoera txarrean dago ezin da patinetien jun nere umeeekin bidea erten behar izaten deu

- DA taberna atzean dagoen parkeko zorua berritzea nahiko genuke. Oso egoera txarrean eta zaharkituta dago eta haurrak estropuz egin eta erori egiten dira (ikusmen arazotxo dituzten umeentzat bereziki). Orain DA taberna iriki denetik ikusita haur kopuruak gora egin duela parke honetan eta inguruan eraikitzen ari diren etxe pila hauekin, haur gehiago ibili daitekela pentsatuta mesedez eskatzen degu zorua konpontzea edo berritzea.

II. ERANSKINA – Oinarrizko Bibliografia

ACCESIBILIDAD AL MEDIO URBANO PARA DISCAPACITADOS VISUALES. Colegio Oficial de Arquitectos de Madrid (COAM). 1992

ACCESIBILIDAD A LOS MEDIOS AUDIOVISUALES PARA PERSONAS CON DISCAPACIDAD – AMADIS 2006
Real Patronato sobre Discapacidad. 2007

ACCESIBILIDAD DE CAJEROS AUTOMÁTICOS PARA PERSONAS DISCAPACITADAS.
Fundació Barcelona Digital. 2006

ACCESIBILIDAD EN EDIFICIOS DE USO PÚBLICO DE LA COMUNIDAD AUTONOMA DEL PAIS VASCO: INFORME EXTRAORDINARIO DE LA INSTITUCION DEL ARARTEKO AL PARLAMENTO VASCO. ARARTEKO
SIIS-Centro de Documentación y Estudios. 2003

ACCESIBILIDAD EN EL MEDIO FISICO PARA PERSONAS CON CEGUERA O DEFICIENCIA VISUAL.
Organización Nacional de Ciegos Españoles, Dirección de Autonomía Personal y Bienestar Social. 2003

ACCESIBILIDAD EN ESPACIOS PUBLICOS Y EDIFICACION: GUIA PARA LA APLICACION TECNICA DE LA LEY DE PROMOCION DE LA ACCESIBILIDAD Y SUPRESION DE LAS BARRERAS ARQUITECTONICAS, URBANISTICAS Y DE LA COMUNICACION EN CANTABRIA.
Gobierno de Cantabria, Consejería de Sanidad, Consumo y Bienestar Social. 1997

ACCESIBILIDAD EN LOS ENTORNOS PÚBLICOS URBANIZADOS
Gobierno de España. Ministerio de Vivienda. 2010

ACCESIBILIDAD PARA PERSONAS CON CEGUERA O DEFICIENCIA VISUAL.
Organización Nacional de Ciegos Españoles, Sección de Acción Social e Integración Laboral .1994

ACCESIBILIDAD Y SUPRESION DE BARRERAS: EL METODO Y PROCEDIMIENTO EN LA COMUNIDAD DE MADRID

Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, IMSERSO. 1996

ACCESIBILIDADE O MEDIO FISICO. COLEXIO OFICIAL DE ARQUITECTOS DE GALICIA

Xunta de Galicia, Conselleria de Traballo e Servizos Sociais, Dirección Xeral de Servizos Sociais. 1992

ANALISIS COMPARADO DE LAS NORMAS AUTONOMICAS Y ESTATALES DE ACCESIBILIDAD.

Real Patronato de Prevención y de Atención a Personas con Minusvalía. 1999

BARES Y RESTAURANTES ACCESIBLES PARA TODAS LAS PERSONAS.

Fundación ONCE. Federación Española de Hostelería. 2007

BUENAS PRÁCTICAS EN ACCESIBILIDAD UNIVERSAL. SOCYTEC S.L.

Junta de Comunidades de Castilla - La Mancha. 2007

CATÁLOGO DE BUENAS PRÁCTICAS EN MATERIA DE ACCESIBILIDAD EN ESPACIOS NATURALES PROTEGIDOS

Fundación Fernando González Bernáldez. 2007

COMO HACER CASAS RURALES ACCESIBLES PARA PERSONAS CON MOVILIDAD REDUCIDA

PREDIF. 2005

CONCEPTO EUROPEO DE ACCESIBILIDAD

Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Instituto de Migraciones y Servicios Sociales; Centro Estatal de Autonomía Personal y Ayudas Técnicas. 1996

CRITERIOS BASICOS PARA LA MEJORA DE LA ACCESIBILIDAD Y HABITABILIDAD EN EL MEDIO URBANO

Federación Española de Municipios de Provincias. FEAMP. 1991

CURSO BASICO SOBRE ACCESIBILIDAD AL MEDIO FISICO: EVITACION Y SUPRESION DE BARRERAS ARQUITECTONICAS, URBANISTICAS, EN EL TRANSPORTE Y EN LAS TELECOMUNICACIONES.

Real Patronato de Prevención y de Atención a Personas con Minusvalía. 1996

CURSO DE TURISMO ACCESIBLE.

Real Patronato de Prevención y de Atención a Personas con Minusvalía. 2006

DE LA CIUTAT SENSE BARRERES A LA CIUTAT PER A TOTHOM.

Diputació de Barcelona. 2002

DECÁLOGO DE BUENAS PRÁCTICAS EN ACCESIBILIDAD TURISTICA

Ministerio de Industria, Turismo y Comercio. 2007

DISEÑO URBANO. ACCESIBILIDAD Y SOSTENIBILIDAD.

Instituto Monsa de Ediciones. 2007

EL TRANSPORTE PARA PERSONAS CON MOVILIDAD REDUCIDA

Ministerio de Asuntos Sociales, Instituto de Migraciones y Servicios Sociales. 1989

EL HOTEL ACCESIBLE. GUÍA PARA SU DISEÑO, ORGANIZACIÓN Y GESTIÓN

Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, IMSERSO. 2006

ESTUDIO DE VIABILIDAD PARA LA MEJORA DE LA ACCESIBILIDAD DE LA RED DEL METRO DE BARCELONA.

Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, INSERSO. 1992

GUIA ACCESIBLE DEL VIAJERO CON MOVILIDAD Y/O COMUNICACIÓN REDUCIDAS

Editorial Polibea. 2004

GUIA BASICA PER A LA REDACCIO D'UN PLA D'ACCESSIBILITAT MUNICIPAL:(VIA PUBLICA I EDIFICACIO)

Generalitat de Catalunya, Departament de Benestar Social. 2000

GUIA DE ACCESIBILIDAD PARA EL COMERCIO Y LA HOSTELERIA

Cámara de Comercio de Murcia. 2007

GUIA PARA LA ELIMINACION DE LAS BARRERAS DE COMUNICACIÓN = GUIA PARA A ELIMINACION DAS BARREIRAS DE COMUNICACION

Federación de Asociacions de Xordos do Pais Galego

GUIA PARA LA REDACCION DE UN PLAN MUNICIPAL DE ACCESIBILIDAD.

Real Patronato de Prevención y de Atención a Personas con Minusvalía. 2000

GUIA TECNICA DE ACCESIBILIDAD EN LA EDIFICACION 2001

Ministerio de Fomento; Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. 2001

*GUIA TECNICA DE ACCESIBILIDAD A LOS PARQUES NACIONALES ESPAÑÓLES
PARA PERSONAS CON MOVILIDAD REDUCIDA*

Organismo Autónomo Parques Nacionales. 2003

HIRI ANALISIRAKO MANUALA. GENEROA ETA EGUNEROKO BIZITZA

Hiria Kolektiboa. Esuko Jaurlaritza-Gobierno Vasco. 2010

*LA ACCESIBILIDAD DEL TRANSPORTE EN AUTOBÚS: DIAGNÓSTICO Y
SOLUCIONES*

Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. IMSERSO. 2006

*LA ACCESIBILIDAD UNIVERSAL EN LOS MUNICIPIOS: GUÍA PARA UNA POLÍTICA
INTEGRAL DE PROMOCIÓN Y GESTIÓN. ACCEPLAN.*

Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, IMSERSO. 2005

*LA DISCAPACIDAD EN EL SIGLO XXI: PLAN DE ACCION: UNA PROPUESTA DE
FUTURO*

Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, INSERSO. 1996

*LA ELIMINACION DE BARRERAS ARQUITECTONICAS Y URBANISTICAS: UN RETO
SOCIAL DEL SIGLO XXI*

Fundación Dragados y Asociación de Periodistas Europeos. 2002

LA PRÁCTICA MUNICIPAL EN EL AMBITO DE LA ACCESIBILIDAD

Federación Española de Municipios de Provincias. FEAMP. 2003

*LIBRO BLANCO: POR UN NUEVO PARADIGMA, EL DISEÑO PARA TODOS, HACIA
LA PLENA IGUALDAD DE OPORTUNIDADES*

Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, IMSERSO. 2003

LIBRO BLANCO DEL DISEÑO PARA TODOS EN LA UNIVERSIDAD.

Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, IMSERSO. Fundación ONCE. 2007

*LIBRO VERDE: LA ACCESIBILIDAD EN ESPAÑA: DIAGNOSTICO Y BASES PARA UN
PLAN INTEGRAL DE SUPRESION DE BARRERAS.*

Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. 2003

LOS BENEFICIOS DE RENUNCIAR A LAS BARRERAS: ANALISIS ECONOMICO DE LA DEMANDA DE ACCESIBILIDAD ARQUITECTONICA EN LAS VIVIENDAS.

Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Secretaria General de Asuntos Sociales, Instituto de Migraciones y Servicios Sociales. 1999

MANUAL DE ACCESIBILIDAD

Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, INSERSO. 1995

MANUAL DE ACCESIBILIDAD A HOTELES PARA PERSONAS CON MOVILIDAD REDUCIDA.

Real Patronato de Prevención y de Atención a Personas con Minusvalía. 1994

MANUAL DE ACCESIBILIDAD ARQUITECTÓNICA.

Generalitat de Valencia, Conselleria de Trabajo y Asuntos Sociales, Dirección General de Servicios Sociales. 1996

MANUAL DE ACCESIBILIDAD GLOBAL PARA LA FORMACIÓN

Fundación ONCE. AENOR. 2006

MANUAL DE ACCESIBILIDAD INTEGRAL PARA LAS EDIFICACIONES ADMINISTRATIVAS ADSCRITAS A LA ADMINISTRACIÓN DEL ESTADO.

Ministerio de Trabajo e Inmigración. 2007

MANUAL DE ACCESIBILIDAD UNIVERSAL PARA HOTELES.

Real Patronato sobre Discapacidad. Paradores de Turismo de España, S.A. 2007

MANUAL DE ACCESIBILIDAD UNIVERSAL PARA LA FORMACIÓN DE ENCARGADOS DE OBRAS Y OFICIALES DE PRIMERA.

Fundación Laboral de la Construcción. 2007

MANUAL PARA UN ENTORNO ACCESIBLE

Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Real Patronato sobre Discapacidad. 2005

MANUAL DE VADOS Y PASOS PEATONALES.

Escuela Libre Editorial. Fundación ONCE. 2000

MANUAL EUROPEU PER A UN ENTORN URBANITZAT ACCESSIBLE

Generalitat de Catalunya, Departament de Benestar Social. 1992

MANUAL SOBRE ACCESIBILIDAD Y VIDA COTIDIANA

SINPROMI. 2000

MANUAL TECNICO PARA LA ACCESIBILIDAD EN LOS AEROPUERTOS

Aena (Aeropuertos Españoles y Navegación Aérea). 1998

MEJORA DE LA ACCESIBILIDAD UNIVERSAL A LOS ENTORNOS

Comité Español de Representantes de Personas con Discapacidad – CERMI. 2005

PARA UNA ARQUITECTURA ACCESIBLE: GRUPO PROYECTOS LUIS P. CARNICERO, 1991: VILLAS PARA LAURA

Centro Estatal de Autonomía Personal y Ayudas Técnicas (C.E.A.P.A.T.).1991

PLAN ESTATAL DE ACCESIBILIDAD

Ministerio de Fomento / Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales / Comité Español de Representantes de Minusválidos (CERMI). 1999

PREGUNTAME SOBRE ACCESIBILIDAD Y AYUDAS TÉCNICAS

Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, IMSERSO. 2005

PROTOCOLO ACCESIBLE PARA PERSONAS CON DISCAPACIDAD.

Fundación ONCE. 2006

I PLAN NACIONAL DE ACCESIBILIDAD 2004-2012: POR UN NUEVO PARADIGMA, EL DISEÑO PARA TODOS, HACIA LA PLENA IGUALDAD DE OPORTUNIDADES

Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. 2003

TURISMO ACCESIBLE

Comité Español de Representantes de Personal con Discapacidad – CERMI. 2003